



AIARAKO UDALAK 2021eko OTSAILAREN 18an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
José Antonio Bartolomé Pesquera jn.
Itxaso Gorbeña Allende and.
Unai Campo Arenaza jn.
Susana Martín Benavides and.
Karmele Población Martínez and.
Marian Mendiguren Mendíbil and.
Koldo Mendioroz Goldaraz jn.
Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita bateko otsailaren hamazortzian, hamabiak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

M^a Del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongiatorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, 2021erako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko. Udalbatzari Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren berri eman zaio, 2021erako dena, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko. Hitzarmenak honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiarekin akordio bat sinatzeko beharra, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen garapena eta jarraipena egiteko lankidetzaz tresna bat ezartzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren mendeko udal-eskumeneko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko lankidetzaz esparrua, Aiara eta Okondo udalerrietako biztanle guztiak artatzen dituen.

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren eredia, 2021erako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko. Eredua hori Arabako Foru Aldundiak udal honi bidali zion 2021eko otsailaren 1ean.

*Aurreko guztiagatik, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako **ERABAKI** hau hartzea:*



Lehenengoa.- *Onestea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmenaren eredia, 2021erako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emateko. Eredua hori Arabako Foru Aldundiak udal honi bidali zion 2021eko otsailaren 1ean.*

Bigarrena.- *Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena eratzeko beharrezko dokumentuak sinatu ditza.*

Hirugarrena.- *Hitzarmen horren kopia bat bidaltzea Arabako Foru Aldundiari, udal honetako alkate-udalburuak behar bezala sinatua, jakinaren gainean egon dadin eta beharrezko ondorioak izan ditza.*

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.”

Gai horren aldeko txostena egin zuen Batzorde Soziosanitarioak, Berdintasunekoak, Immigraziokoak eta Adinekoenak, 2021eko otsailaren 9an egindako bilkuran.

Bozketan egin denean, Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela puntu honetan, aurrerago azalduko duen arrazoiagatik, eta gai-zerrendako lehenengo hiru puntuak elkarrekin lotuta daudela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak argitu du gai-zerrendako puntu hau beste bi puntuekiko independentea dela, eta ez dutela elkar baldintzatzen; izan ere, gauza bat EALZren kudeaketa da eta beste bat Oinarrizko Gizarte Zerbitzua.

Esku-hartzeak amaitu direnean, AIARA BATUZ taldearen ordezkariaren eta EAJ-PNVren ordezkariaren aldeko botoarekin, eta EH Bilduren ordezkariaren abstentzioarekin, erabaki da erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.

2º.- Aiarako Udaleko Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren Ordenantza Fiskala onesteko osoko bilkuraren erabaki-proposamena.- Jarraian, Udaltzari jakinarazi zaio Aiarako Udaleko Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren Ordenantza Fiskala onesteari buruzko erabaki-proposamena. Honela dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- *EUDELe udal honi bidalitako idatzia, Eguneko Arretarako Landa Zentroaren (EALZ) zerbitzua berrantolatzeari buruzkoa. Idatzi horri zerbitzua emateagatik prezio publikoaren ordenantzaren eredia erantsi zaio, Udalak onesteko, bai eta Arabako Foru Aldundiaren zerbitzuaren kostuari buruzko datu ekonomikoak ere.*

*Udalbatza Osoari proposatu zaio honako **ERABAKI** hau hartzea:*

LEHENENGOA.- *Udal honetako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren antolamendu berriaren prezio publikoa behin-behinean onesteko erabakia hartzea, bai eta hori arautzen duen Ordenantza Fiskala ere. Honako hau dio ordenantza horrek:*



“AIARAKO UDALAREN EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAREN ZERBITZUARI BURUZKO ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua.- Xedea

Ordenantza honen xedea da Eguneko Arretarako Landa Zentroaren prezio publikoen aplikazioa arautzea; hain zuzen ere:

- Zerbitzuaren erabiltzaileak prezio publikoa ordaintzean nola lagundu behar duen ezartzeko irizpideak.
- Sortzapenean eta ordainketan aplikatuko diren irizpideak.
- Prezio publikoak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- Prezio publikoen zenbatekoak ezartzea, bai eta erabiltzaileen ahalmen ekonomikoaren arabera aplikatuko diren hobariak ere.

2. artikulua.- Eremua

Zerga ordenantza hau eguneko arretarako landa zentroari aplikatuko zaio, bai zuzenean kudeatzen bada, bai beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen bitartez kudeatzen bada, bai erakunde pribatuekin sinatutako itunen, hitzarmenen edo kontratuen bitartez kudeatzen bada.

3. artikulua.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

1. Honako hauek ordaindu behar dituzte prezio publikoak:
 - a) Eguneko Arretarako Landa Zentroa zuzenean erabiltzen duten pertsona fisikoak, baldin eta 1. paragrafo honen b) atalen aipatutako egoeran ez badaude.
 - b) Erabiltzaile helduak legezko ordezkari edo egitatezko zaintzaile baten bitartez jarduten badira, zerbitzua jasotzeko erregelamenduan ezarritako baldintzen arabera, ordezkari edo zaintzaile horiek ordaindu beharko dute. Dena den, kasu horietan, ordainketa zordunduko da ordezkariaren pertsonaren errentan edo ondarean, eta zenbatutako ahalmen ekonomikoa izango da pertsona ordezkatuarena.
2. Bidezkoa bada, prezio publikoa modu subsidiarioan ordaindu beharko dute honako pertsona hauek egindako doako eskualdaketa jaso duten pertsonak: erabiltzaileak; edo 60 urtetik aurrera edo zerbitzua jasotzeko lehenengo eskaera egin aurretiko 10 urtean erabiltzailearen ezkontidea izan denak edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman baten bidez erabiltzailearekin lotuta egon den pertsonak –zerga ordenantza honen lehen xedapen gehigarrian harreman hori zehaztu den baldintzetan–.

Ordaindu beharrak muga bat dauka ondasun higiezinatarako: merkatuko balioa, zorra eskatzen den unean eguneratua.

Gainerako ondasunen dohaintzetan, ordaintzeko betebeharra dohaintza datan egindako eskualdaketa datzekion baliorainokoa izango da, KPI egokiaren arabera eguneratuta.

Era berean, erabiltzailearen ondare guztia edo horren zati bat bahitu badute abal emaile, hipoteka bermatzaile edo antzekoen legez sinatu duelako hirugarren baten alde, azkenak prezio publikoa ordaindu beharko du aurrekoaren orde. Ordaintzeko betebeharra abal, hipoteka edo antzeko figuraren eraketa eskriturretan edo, halakorik ezean, enbargo eskriturretan esleitutako tasazio baliorainokoa izango da.



I. TITULUA: ERABILTZAILEAREN PARTE-HARTZE EKONOMIKOA

4. artikulua.- Prezio publiko osoa ordaintzea

- 1. Zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak dagokien prezio publiko osoa ordainduko dute, baldin eta behar besteko ahalmen ekonomikoak badute, eta, edonola ere, prezio hori ordaintzeko beharrezko bermeak egitea eskatu ahal izango zaie.*
- 1. atalean ezarritakoa betetzeko, zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak behar besteko ahalmen ekonomikoak dutela joko da kasu honetan: ahalmen ekonomikoak, zerga ordenantza honen III. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera zenbatua, II. eranskinean zehaztutako mugak bezain handia edo horiek baino handiagoa bada, zerbitzu mota kontuan hartuta.*
- 3. Prezio publikoa zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoak artikuluko honen 2. paragrafoan ezarritako mugen azpitik badago, prezio publikoa modu subsidiarioan ordaintzera behartutako eta 3.2 artikuluan definitutako pertsonetara joko da, erabiltzaileak egindako ekarpena osatzeko, harik eta prezio publikoaren zenbatekoa osorik estali arte, edo prezio publikoa osorik ordaintzeko, baldin eta prezio publikoa 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoak ez badio uzten ekarpenik egiten.*

5. artikulua.- Hobariak

- 1. 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoak ez badute, II. eranskinean ezarritako mugaren azpitik dagoelako, prezio publiko horien hobariak jaso ahal izango dituzte.*
- 2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren prezio publikoen hobariak gehikortasun printzipioaren arabera aplikatuko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoak kontuan hartuta. Erabiltzaileen ahalmen ekonomikoak zerga ordenantza honen III. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera zenbatuko da*
- 3. Artikulu honetan ezarri diren hobariak zerga ordenantza honen III. eranskinean finkatu dira, eta, I. eranskinean finkatu diren prezio publikoak indarrean baldin badaude, aplikagarriak izango dira. Prezio horiek 16. artikuluan ezarri den moduan eguneratzen edo aldatzen baldin badira, dagozkien hobariak ere zehaztuko dira.*

6. artikulua.- Salbuespen partzialak, erabilera motaren arabera

- 1. Eguneko arretarako landa zentroko erabiltzaileak, gizarte eta familia harremanak hobeto batera ditzaten, bost eguneko aldietan edo epe luzeagoetan –betiere egun horietan zerbitzua funtzionamenduan badago– zerbitzua erabiltzen ez badute, urtean gehienez ere 45 egunetan, lekua gordetzeko zenbateko gisa, norberari esleitutako prezio publikoaren ehuneko 60 aplikatuko zaie epe horietan. Gizarteratzea dela eta urtean 45 egun baino*



gehiago huts eginez gero, salbuespen partziala bertan behera geratuko da eta 46. egunetik aurrera prezio osoa ordaindu beharko da atzera ere.-

2. *Ez da aplikatuko inolako salbuespen partzialik prezio publikoaren ordainketan ospitaleratzeagatik, eta, beraz, ez da etengo prezio publikoaren sortzapena. Aurrekoa horrela bada ere, ospitaleratzeak jarraian zazpi egun edo gehiago irauten badu, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa ehuneko 90 izango da, erabiltzailearen ospitaleratze aldiko lehen egunetik aldi hori amaitu arte, baldin eta ospitaleratzeak zerbitzu hori eskuratzeko araudian jasotako gehieneko etendura epea baino gehiago irauten ez badu. Muga hori gainditzen badu, ospitaleratu aurretik erabiltzen zuen zerbitzuaren erabiltzailea izateari utziko dio.*

3. *Zerbitzua eten arren ez da salbuespen partzialik egingo prezio publikoaren ordainketan, baldin eta, zerbitzua eskuratzeko araudiaren arabera, eskatzen den informazioa edo dokumentazioa emateko betebeharra behar baino beranduago betetzen bada, edo prezio publikoa behin eta berriro ordaintzeke uzten bada.*

7. artikulua.- Erabilera libreko zenbatekoa

Erabilera libreko zenbatekoa bermatuko da zerbitzu mota bakoitzari dagozkion hobariak zehazteko erabili den formularen bitartez (hobariak zerga ordenantza honen III. eranskinean ezarri dira).

II. TITULUA SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

8. artikulua.- Sortzapena

Araudi honetan arautu den prezio publikoa ordaintzeko betebeharra sortuko da zerbitzua eraginkortasunez hasten den egunean, eta egun horretatik zerbitzua erabiltzen behin betiko amaitzen den unera arte iraungo du betebeharrak.

9. artikulua.- Ordainketa

Zerbitzu batengatik ezarritako prezio publikoa (zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa zein salbuespen partziala daukana) ordainagiria kobratzeko aurkezten denean ordainduko da. Kobrantza banku batean helbideratuko da.

III. TITULUA KUDEAKETA ETA LIKIDAZIO ARAUAK **I. KAPITULUA. AHALMEN EKONOMIKOA ZEHAZTEA**

10. artikulua.- Ahalmen ekonomikoaren osagaiak

1. *Zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan zehaztu denaren arabera, ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa kalkulatu behar da, prezio publikoan egingo duen ekarpena zehazteko; horretarako, familia unitatearen urteko errenta eta ondarea zenbatu beharko dira, eta kapitulu honetan ezarritako balioespen irizpideak aplikatu.*
2. *Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako hauek erabiliko dira:*
 - a) *Erabilgarri dauden azken zerga datuak, betiere, datu horiek aldatu dituen geroagoko gertaera garrantzitsu bat izan ezean. Horrelako kasuetan, datu eguneratuenak erabiliko dira.*



- b) *Hiri ondasun edo landa ondasunei dagokienez, halakoak katastroko balioaren arabera zenbatuko dira, erabilgarri dauden azken zerga datuak erabiliz, ondasunok daudeneko autonomia erkidegoak edo lurralde historikoak ondasun higiezinak balioesteko berariaz darabilen araudiari men eginda.*
- c) *Edozein eratako ondasunen dohaintzak edo haien gaineko eskubideei uko egiteak dohaintza datan duten eskualdatze balioaren arabera balioetsiko dira, dagokion KPIaren arabera eguneratuta.*

11. artikulua.- Errenta

- 1) *Aurreko artikuluan ezarritako ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo sarrera konputagarritzat joko dira familia unitateak urtean dauzkan lanaren ziozko etekinak eta eskubideak, ondokoetatik eratortzen badira:*
 - a) *Funts publikoetan edo pribatuetan zorduntzeko pentsioak edo prestazio ekonomikoak (jasotzen diren diru sarrera gordinak zenbatuko dira). Horretarako, sailkapen horren barnean hartuko dira pentsioak, sorospenak, prestazio ekonomikoak eta beste edozein eskubide ekonomiko, zerbitzuaren erabiltzaileak eskubide horiek sortu baditu, artikuluko honen 2. paragrafoan ezarritako prestazioak izan ezik.*
 - b) *Norberaren edo besteren kontura lan egiteagatik lortutako etekin osoak.*
- 2) *Honako prestazio hauek ez dira zenbatuko, errenta zehazteko:*
 - a) *Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateari buruzko azaroaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazio ekonomiko finalistak, hain zuzen ere: Familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazioa, arreta pertsonaleko prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.*
 - b) *Honako prestazio hauek (aurreko a) atalean ezarritako prestazioen antzeko xede eta ezaugarriak dituzte):*
 - *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 194. artikuluan eta hurrengoetan araututako baliaezintasun handiaren osagarria.*
 - *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 353 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, desgaitasun maila ehuneko 75ekoa edo handiagoa daukan 18 urtetik gorako ardurapeko seme-alabaren ziozko esleipen ekonomikoaren osagarria.*
 - *Kotizaziopekoa ez den baliaezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzearen ziozkoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 364. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenen abenduaren 10eko 52/2003 Legeak aldatu zuen legegintzako errege dekretu hori.*
 - *Hirugarren pertsona baten laguntzarengatik sorospena, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 12.2 c) artikulua arautzen duena, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Lege*



Orokorren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena legegintzako errege dekretu hori indarrean jarri baino lehenagotik hura jasotzen duten eta dekretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat.

- 3) *Errenta balioztatzeko, erreferentziatzat hartuko da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa, 10.2 artikuluan aipatu diren zerga datuak oinarri hartuta. Diru sarreratzat zenbatuko da honako kontzeptu hauen batuketa:*

- *Lanaren etekin osoak.*
- *Lanbide jardueren, enpresa jardueren eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin osoak.*
- *Egotzitako lanaren errenta salbuetsiak, guztira.*

Artikulu honetako 2. paragrafoan azaldutako errentaren bat jasotzen dutenek prestazio ekonomiko horien frogagiria aurkeztu behar dute salbuetsitako zenbatekoa kalkulatzeko, paragrafo horretan ezarritako ondorioetarako.

- 4) *Hileko errenta kalkulatzeko urteko errenta hamabiz zatituko da.*

12. artikulua.- Ondarea

1. *10. artikuluan ezarritakoa betetzeko, ondaretzat hartuko dira honako hauek:*

- *Familia unitatea osatzen duten pertsonak osorik edo zati batean jabetzan dituzten eduki ekonomikoko ondasunak eta eskubideak, eskuragarri dauden azken zerga datuak oinarritzat hartuta eta finantza aktiboen inguruan eskatzen den informazioaren bidez osatuta.*

- *Ekitaldi batean edo ekitaldi gehiagotan sortu diren kalte ordain edo errenta kapitalizatuak.*

- *Erabiltzaileak, beraren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– edo ordaindu behar duen pertsonak doan eskualdatu dituen ondasunen eta eskubideen balioa, dohaintza datan duten eskualdatze balioaren arabera, dagokion KPIaren arabera eguneratuta.*

2. *Honako hauek ez dira zenbatuko ondarea kalkulatzekoan:*

- a) *Ohiko etxebizitza, aparteko balioa eduki ezean (apartekotzat jotzen dira 250.000 eurotik gorako katastro balioak); etxebizitzaren balioa apartekoa bada, muga horren gaineko kopurua zenbatu behar da ondarean*

Ohiko etxebizitza ez da halakotzat hartuko, ohiko etxebizitza izandako horren jabea egoitza zentroan (edozein modalitate) edo landa eremuko ostatu zerbitzuan behin betiko hasten bada, familia unitateko kide batek edo batzuek han bizitzen jarraitu ezean (24. artikuluan zehaztu da familia unitatea).

Ondore horietarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko dira honako hauek: etxebizitza bera, garajea edota trastelekua; eta, familia bakarreko landako edo hiriko etxebizitza bada, etxebizitzari atxikita dagoen lur zatia ere bai (bereizita egon ezean).

- b) *Ondasunak eta eskubideak kargatzen dituzten eta horien balioa gutxitzen duten kargak, ohiko etxebizitzatzat erabiltzen den higiezina eskuratzeko direnak izan ezik*



edo, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak onetsi ondoren, higiezina zaharberritzeko erabiltzen direnak. Karga konputagarri horiek guztiek ezin izango dute inola ere balio garbi negatiborik sortu.

- c) *Zor eta betebeharrak pertsonalak.*
- d) *Azaroaren 18ko 41/2003 Legearen itzalpean, zeinaren bidez pertsona desgaituen ondarea babesten baita eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga araudia aldatu baitira pertsona horien ondarea babesteko, babes berezia duen ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, ondarearen jabeak berak zerbitzua jasotzen duenean izan ezik, pertsonaren beharrezkoak asetzen dituen heinean, aurrean aipatutako legeko 1.1 eta 5.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira.*
- e) *Jarduera ekonomiko bati loturik dauden landako edo hiriko higiezinak, baldin eta horietatik ateratako etekinak errenta kalkulatzeko zenbatzen badira, 11. artikulua ezarritako baldintzetan.*

Ondarearen hileko zenbatekoa kalkulatzeko, urteko zenbatekoa hamabiz zatitu behar da.

13. artikulua.- Familia unitatea

1. *Kapitulu honetan ezarritakoa betetzeko, honako hauek hartuko dira familia unitateko kideak:*

- *zerbitzuaren onuraduna bera;*
- *onuradunaren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremanen bitartez berarekin lotuta dagoen pertsona, legez aitortuta eta behar bezala kreditatuta lehen xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan;*
- *ondorengo adingabeak, betiere eskatzaileak guraso ahala badu eta haien ekonomikoki mantentzen laguntzen badu, partzialki edo osorik.*
- *18 urtetik gorako seme-alabak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira;*
- *ikasketa akademiko aratuak egiten ari diren 18 eta 25 urte bitarteko ondorengoak, betiere eskatzaileak guraso ahala badu eta haien ekonomikoki mantentzen laguntzen badu, partzialki edo osorik.*

Ondorengo zaintza partekatuko kasuetan, seme-alabak zerbitzuaren eskatzailearen familia unitatean txertatuko dira. Bi gurasoek foru zerbitzua eskatzen dutenean, lehen ondorengoa mendekotasun maila handieneko eskatzailearen familia unitatean sartuko da; bigarren ondorengoa, mendekotasun maila txikiagoko eskatzailearen familia unitatean; eta horrela ondoz ondo, ondorengo kopuruaren arabera.

2. *Edonola ere, pertsona bat familia unitate bakarreko kide baino ezin da izan.*

14. artikulua.- Ahalmen ekonomikoa balioespen irizpideak

1. *Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako batura hau egin behar da: familiaren urteko errentari familiaren urteko ondarearen ehuneko jakin bat gehitu. Ehuneko horiek aldatuko dira erabiltzailearen adina zein den. Hona hemen:*

Erabiltzaileak 65 urte baino gehiago badauzka, beraren ondarearen ehuneko 20. Nahiz eta 65 urte ez eduki, adinekoentzako zerbitzuetan edo zentroetan salbuespen moduan sartzen diren pertsonen ere aplikatuko zaie atal honetan ezarritakoa.



2. *Prezio publikoa familia unitatearen ahalmen ekonomikoaren arabera zehazten denean, honako irizpide zehatz hauek aplikatu beharko dira*
- Pertsona bakarreko familia denean, ahalmen ekonomikoa 1. paragrafoan azaldutakoa zuzenean aplikatuz zehaztuko da.*
 - Familia unitatean bi pertsona badaude, prezio publikoa kalkulatzeko (osoa edo hobari-duna), 1. paragrafoan azaldutakoaren arabera kalkulaturako hileko guztirako ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80 hartuko da kontuan.*
 - Familia unitatean bi pertsona baino gehiago badaude, b) atalean azaldu den ehuneko 80ko kopuruari ehuneko 5 kenduko zaio gainerako pertsona bakoitzeko.*

Hileko ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, urteko ahalmen ekonomikoa hamabiz zatituko da.

II. KAPITULUA: EBAZPENA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERAKETA

15. artikulua.- Ebazpena

Organo eskumendunaren ebazpenean jasoko da zerbitzuaren prezio publiko osoa, eta hala badagokio, ahalmen ekonomikoaren araberrako prezio publiko hobariduna.

16. artikulua. Prezio publikoak ofizioz berrikustea eta informazioa eman beharra

- Eguneko arretarako landa zentroa erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak —zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa, zein salbuespen partziala daukana—, banaka zein denak batera, ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo eskumendunak, eta interes-dunak, bere legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak eskatuta ere berrikusi ahal izango dira. Berrikuspen baten ondorioz jakiten bada prezio publikoa ezartzerakoan kontuan hartutako ahalmen ekonomikoa aldatu dela, prezioaren zenbatekoa aldatu ahal izango da, dagokion ebazpen bidez.*
- Horren ondorioetarako, zerga ordenantza honek erreferentzia egiten dion prezio publiko ordaintzera loturik dagoen edozein zerbitzuren erabiltzaileak —edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak— jakinarazi beharko du, hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, gorabeherarik egon den elkarbizitza egoeran, egoera zibilean, egoitzan, errenta edo ondare propio edo inoren ondare konputagarrian eta erabiltzaileari esleitutako prezio publikoetan eragina izan dezaketen gainerako inguruabar guztietan.*
- Administrazio eskumendunak jakinez gero zerbitzu erabiltzaile baten ahalmen ekonomikoa aldatu dela eta ez dela horren berri eman aurreko zenbakian ezarri den bezala, ezarritako prezio publiko berrikusiko du eta inguruabar berrietara doituko du. Bi egoera gerta daitezke:*
 - Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, atzerako eraginez aplikatuko da, egoeran aldaketa hori gertatu zen egunetik aurrera eragina izateko, eta 3.1. artikuluaaren arabera ordaintzeko betebeharra duen pertsonak, hartara, epe horretan pilatu diren ordainkizun atzeratuak ere ordaindu beharko ditu.*
 - Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da aplika-tuko atzerako eraginez.*



4. *Ahalmen ekonomikoaren aldaketaren berri eman bazaio administrazioari, eta, administrazio horri lepora dakizkion arrazoiengatik, prezio publikoa 2 hilabeteko epean berrikusi ez bada, honako bi egoera gerta daitezke:*

- a) *Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.*
- b) *Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, administrazioak bidegabe ordaindu diren zenbatekoak itzuliko ditu.*

17. artikulua.- Prezio publikoak eguneratzea

Zerga ordenantza honetan ezarritako prezio publikoak ordenantza bidez eguneratu behar dira; beraz, hurrengo ordenantza horretan ezarriko dira aplikatu beharreko hobariak eta behar besteko ahalmen ekonomikoa.

III. KAPITULUA: PREZIO PUBLIKOENGATIK SORTUTAKO ZORRAK

18. artikulua.- Prezio publikoengatik sortutako zorrak

1. *Zerbitzuak sortutako prezio publikoaren ordainagiria –prezio osoa edo prezio hobariduna– itzultzen badu bankuak, zordunari ordaintzeko eskatuko zaio, eta 30 egun naturaleko epea emango zaio zor duen zenbatekoa ordaintzeko edo ordainketa zatitzeko eskaera egiteko*
2. *Aurreko puntuan aipatzen den epean eskatutako dirua ordaindu ezean, edo ordainketa zatitzeko eskatu ezean, 1. paragrafoan ezarritako prezio publikoa eskatuko da premiamenduko administrazio prozedura bidez.*
3. *Ez bada ordaintzen ordaindu beharreko prezio publikoa, eta hori behin eta berriz egiten bada, zerbitzua eskuratzeko eskubidea eten ahal izango da.*
4. *Baldin eta, zerbitzua eskuratzeko prozeduraren esparruan, egiaztatzen bada zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan jasorikoaren arabera prezio publikoa ordaintzera behartutako pertsonak lehenago ere zorrak dauzkala ez duelako ordaindu eguneko arretarako landa zentroaren prezio publikoa, eskatzaileari eskatuko zaio kasuan kasuko jakinarazpena jaso eta 30 egun naturaleko epean ordain ditzala zor dituen kopuruak edo organo eskumendunari eska diezaiola zatikatu diezaiola zorra, artikulua honetako 1. eta 2. ataletan jasotzen den bezala.*

Pertsonak ez badu errekurritzen zorra ordaintzeko, hurrengo zerbitzuan hasteko eskaeran atzera egin duela joko da, eta beste izapiderik egin gabe artxibatuko da, horretarako eskumena duen organoak ebazpena eman ondoren. Edonola ere, pertsonak zorra ordaindu ahal izango du geroago, bai eta zerbitzuan hasteko beste prozedura bat abiarazi ere.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezkontzaren antzeko harremana

1. *Izatezko Bikoteen maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak zehaztu dituen bikoteak ezkontzaren antzeko harremanaren bitartez lotuta daudela joko da zerga ordenantza honen ondoreetarako. Lege hori autonomietan dago indarrean.*
2. *Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria, edo, hala badagokio, udal erregistroaren ziurtagiria aurkeztuta ziurtatuko da harreman hori, lege horren 3. artikuluan araututako baldintzetan.*



BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Aparteko egoera

1. *Eguneko arretarako landa zentroaren erabiltzaileen egoera sozioekonomikoa berezia izan litekeela jakinik, organo eskumendunak zerga ordenantza honetan jasotako hobari partzialak edo hobari osoak zehaztu ahal izango ditu, edo, hala badagokio, areagotu ahal izango ditu zerga ordenantza honetan xedatutako hobarien zenbatekoak, salbuetsitako zenbatekoak eta erabilera libreko zenbatekoak.*
2. *Seigarren artikuluan aipatutako arrazoiez bestelako arrazoiengatik zerbitzuen erabilera eteten bada, organo eskumendunak prezio publikoaren salbuespen partzialak onartu ahal izango ditu plaza gordetzeko.*

AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea.

1. *Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.*
2. *Zerga ordenantza hau aplikatuko zaie eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua data horretan edo ondoren eskuratzen duten pertsonari.*

I. ERANSKINA

PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

<i>1. tarifa. Eguneko arretako landa zentroak:</i>	
<i>1.1. tarifa. Arreta pertsonala emateko zerbitzua</i>	<i>119,73 € hilean</i>
<i>Zerbitzu osagarriak:</i>	
<i>1.2. tarifa. Otordu zerbitzua</i>	<i>81,60 € hilean</i>
<i>1.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua</i>	<i>7,54 € saioko</i>
<i>1.4. tarifa. Bainu geriatrikoko zerbitzua</i>	<i>4,68 € saioko</i>


1.1 edo 1.2 tarifa aplikatzen zaien zerbitzuak egunero erabiltzen ez badira, prezioa erabileraren proportziozkoa izango da.

II. ERANSKINA

AHALMEN EKONOMIKOA NAHIKOA DEN ZEHAZTEA

I. eranskinean ageri diren prezio publikoak indarrean dauden bitartean, zerbitzu baten erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa nahikotzat joko da eranskin honetan ezarritako kasuetan.

1. *Hobariak zehazteko 5.1 artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da, hura III. tituluaren I. kapituluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta eta 1.500,00 euro/hil kopurua bezain handia edo hura baino handiagoa bada.*



2. Era berean, behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da pertsonaren ondare zenbakarria 50.000 eurokoa edo hori baino handiagoa bada, nahiz eta III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturako ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan ezarri diren mugak baino txikiagoa izan.

III. ERANSKINA

HOBARI APLIKAGARRIAK

I. eranskinean ezarritako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa ez duten pertsonari honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, zerga ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik:

Eguneko arretarako landa zentroetan, arreta pertsonaleko zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko banakako prezioa kalkulatzeko, honako taula honetan ageri diren hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalmen ekonomikoa oinarritzat hartuta:

Familiaren ahalmen ekonomikoa (eurotan)	Gehienez ere (euroak)	Zenbatekoa	Gainerakoa, gehienez ere	Ehunekoa
0,00tik aurrera	0	0	500,00	3,0
600,00	500,00	17,35	100,00	5,0
700,00	600,00	22,35	100,00	7,0
800,00	700,00	29,35	100,00	10,0
900,00	800,00	39,35	100,00	10,0
1.000,00	900,00	49,35	100,00	11,0
1.100,00	1.000,00	60,35	100,00	11,0
1.200,00	1.100,00	71,35	100,00	12,0
1.300,00	1.200,00	83,35	100,00	12,0
1.400,00	1.300,00	95,35	100,00	12,0
1.500,00	1.400,00	107,35	100,00	12,38
1.500,00 € baino gehiago		Tarifa gehienez		119,73 euro

BIGARRENA.- Erabaki hori jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori Udalaren iragarki-oholean jarriko da, hogeita hamar egun baliioduneko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egokituz jotako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

HIRUGARRENA.- Epe horretan espedienteari alegaziorik aurkeztu ez bazaio, erabakia behin betiko onetsituz joko da, osoko bilkuraren beste erabaki baten beharrik gabe, Toki Ogasunei buruzko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz.”



Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.”

Gai horren aldeko txostena egin zuen Batzorde Soziosanitarioak, Berdintasunekoak, Immigraziokoak eta Adinekoenak, 2021eko otsailaren 9an egindako bilkuran.

Karmele Población (EH Bildu) zinegotzi andreak gizarte zerbitzuen egoerari buruzko laburpen historiko txiki bat egin du. Honako hau adierazi du: “2015ean, gizarte zerbitzuen eskumenak Aldundiaren eta udalen artean banatzeari buruzko lege-dekretu bat argitaratu zen, 2016tik 2019ra bitartean egiteko aurreikusita zegoena. 2016an, mapa egin zen, baina bi urteko luzapena hartu zen, eta, hortaz, Aldundiaren esku geratu zen. 2018ko abenduan beste luzapen bat egin zen, eta, 2020an, beste bi, bat maiatzean eta bestea abenduan. Ordurako, Aldundiak prest izan behar zituen gizarte-zerbitzu guztietarako zerbitzu teknikoak, ekonomikoak eta juridikoak. Baina ez da horrela izan, eta egin diren bakarrak etxeko zerbitzua eta EALZ izan dira. 2019an, akordio bat lortu zen Eudelen lurralde arteko erakundearekin, izaera bereko zentroen arteko lankidetzaz lortzeko tokiko lankidetzaz sare bat egiteko; izan ere, udal guztiek ez dute EALZen zerbitzurik. Akordio horrek alkate guztien babesa izan zuen, gizarte zerbitzuetako profesionalekin kontrastatu zen eta Aldundiari helarazi zitzaion. Bertan, egungo diputatuak ez du aintzat hartu eta arrazoiak ez du garrantzirik izan”. Hori esanda, amaitzeko, adierazi du EH Bilduko kideek uste dutela Aldundiak Gizarte Zerbitzu zentralizatua izan nahi duela, eta ez duela udalen esku utzi nahi. Uste dute funtsezkoa dela arazo hori konpontzea, eta tokiko erakundeei aukera ematea beren kudeaketaz arduratzeko, eta, hori nahi badute, autonomia hori errespetatu behar dela. Horretarako, Aldundiak bi aukera eman ditu: Aldundiak zerbitzu horien % 80 ematea, eta beste % 20a Udalak jartzea; edo Udalak kudeatu nahi badu, horretarako aukera du, baina laguntzarik gabe, eta hori ez da modurik egokiena kudeaketa hori bere esku uzteko. Adierazi du, gainera, dokumentu horrekin batera txosten tekniko bat aurkeztu beharko litzatekeela udalak tasak aldatzeko, idazkari kontu-hartzaileak sinatuta, eta ez dagoela halakorik; izan ere, ikusi duten gauza bakarra Aldundiak egiten dituen aldaketen datuak jasotzen dituen dokumentu ekonomiko bat dela. Eta arrazoi horiengatik, bozketa honetatik abstenitu dira.

Esku-hartzeak amaitu direnean, AIARA BATUZ taldearen ordezkariaren eta EAJ-PNVren ordezkarien aldeko botoarekin, eta EH Bilduren ordezkarien abstentzioarekin, erabaki da erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.

3.- Aiarako Udaleko Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arautzen duen Udal-araudia onesteko osoko bilkuraren erabaki-proposamena.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiarako Udaleko Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arautzen duen Udal-araudia onesteari buruzko erabaki-proposamena. Horrek honako hau dio:

ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- EUDELEk udal honi bidalitako idazkia. Horren bidez, Arabako Gizarte Zerbitzuen berrantolaketa- eta kudeaketa-prozesuari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Legeak ezarritako eskumen-esparruan benetan emateko, adierazten da amaitu dela Eguneko Arretarako Landa Zentroei dagokien berrantolaketa-prozesua. Idatziarekin batera, honako hauek erantsi dituzte: Zerbitzua Arautzeko Udal-araudiaren ereduak, Ordenantza Fiskala eta Eguneko Arretarako Landa Zentroaren eskumenak eskuordetzeko Hitzarmena eta dagokion udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko garraio egokituko zerbitzua kudeatzeko gomendioa. Udalak



gomendio hori onetsi beharko du, zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko, Zerbitzuen Legeak ezarritako eskumen-esparruan.

*Aurreko guztiagatik, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako **ERABAKI** hau hartzea:*

LEHENENGOA, - *Hasiera batean onestea Aiarako Udaleko Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arautzen duen Udal-araudia. Honako hau dio:*

“EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAREN ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL ARAUDIA

LEHEN TITULUA

1. artikulua.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Arautegi honen xedea da Aiarako udalerriko adineko pertsonen Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arautzea.

2. artikulua.- Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren definizioa

Eguneko Arretarako Landa Zentroak prebentziozko laguntza zerbitzu komunitario eta integra-tzailea ematen du, aldi batez edo era iraunkorrean erabiltzekoa. Eguneroko bizitzako eta aisia edo astialdiko jardueretarako laguntza ematen die, egunez, adineko hauei: autonomia maila desberdina izanik, familia egitura edo laguntza informaleko sare bat daukatena eta horri esker etxean bizitzen jarraitu ahal dutenak, bizi kalitate onargarriaz.

Zerbitzu hauek adineko pertsonen eskura jartzen dute baliabide bat, egunez erabil dezaketena eta beren arreta behar espezifikoekin loturiko laguntza ematen diena.

3. artikulua.- Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren helburuak

Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren helburuak honako hauek izango dira:

- 1. Adineko pertsonak beren ingurune sozialean geldi daitezten ahalbideratzea, behar duten zaintza komunitatean bertan eskainiz.*
- 2. Adineko pertsonen autonomia eta haien integrazioa eta gizarte partaidetza mantentzea, gaitasun funtzional eta sozialei eta buru jarduerari eusteko prebentzio programak, prestazioak eta zainketa txikiak indartuz, aisiaren erabilera eta gizarte, kirol eta bestelako jardueren garapena direla medio, eta erabiltzaileek zentroen funtzionamenduan parte hartzea sustatuz.*
- 3. Adineko pertsonen bizikidetzarako espazioa izatea, kolektibo horren premiak detektatzeko balio duena, arreta zerbitzu intentsiboagoak behar izatea atzeratzeko.*
- 4. Adineko pertsonentzako arretan gizarteak ardura partekatua bere gain har dezan bultzatzea, laguntza sareei babes eman eta horiek bere gain hartzen dituzten kargak liberalizatzea ahalbidetuz, eta, era horretan, bakarrik bizi diren adineko pertsonen nahiz haiek zaintzeaz arduratzen direnei lagunduz.*
- 5. Zerbitzu hauek eta beste komunitate zerbitzu batzuk ematen diren biztanle gune txikien arteko komunikazioa ahalbidetzea.*



6. Eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren erabiltzailea Aiarako Udalarekin eta zentroan lan egiten duten langileekin komunikatzea ahalbideratzea.

4. artikulua.- Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren prestazioak

Aipaturiko helburuak kontuan hartuz eta haiek betetzeko, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuak honako prestazio hauek dauzka:

- a) Informatzea.
- b) Jarraipenaren balorazioa.
- c) Akonpainamendu soziala.
- d) Gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko esku hartzea:
 - Estimulazioa edo errehabilitazioa: trebetasunak garatzea, eguneroko bizitzako funtsezko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko jarduerak eta ariketa errazak.
 - Hezkuntza: aisia, hezkuntza eta kultura jarduerak.
- e) Garraio egokitua, behar denean.
- f) Jana.
- g) Bainugela geriatrikoa / higiene pertsonala.
- h) Hala dagokionean, arropa garbitzeko zerbitzua.

5. artikulua.- Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren ezaugarriak

Adineko pertsonen eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua honako ezaugarri hauen arabera emango da:

1) Arreta egunak

- Oro har, zerbitzua asteleheneretik ostiralera emango da, preskripzio teknikoaren arabera.
- Asteburuetan eta jaiegunetan, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua itxita egongo da.
- Ofizialki izendatutakoak hartuko dira jaieguntzat.

2) Zerbitzuaren intentsitatea

Zerbitzuaren intentsitatea erabiltzaileen beharrezan banakako ebaluazioaren arabera ezarriko da.

3) Arreta ordutegia

Eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuko ordutegi orokorra 11:00/12:00 eta 17:00/18:00 bitartekoa da.

Ordutegi orokor hori aldatu ahal izango da zerbitzuaren beharrezanengatik.

6. artikulua.- Erabiltzaileak zehaztea

Eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuak arreta emango die, lehentasunez, 65 urte baino gehiagoko pertsonen, mendekotasun arriskuan (23 eta 24 puntu arteko puntuazioa mendekotasuna baloratzeko baremoan) edo I. graduako mendekotasun egoeran (25-39 puntu arteko puntuazioa mendekotasuna baloratzeko baremoan) daudenei.



2.- *Honako hauek ere jaso ahal izango dute, salbuespenez, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua:*

- a) *60 urte baino gehiagoko pertsonak, bakarrik edo ahultasun egoerak dituzten adineko pertsonekin bizi direnak, baliabide lagungarri baten beharra baldin badute beren etxean eta ingurunean jarraitu ahal izateko. Egoera bereziak baloratu ahal izango dira, hala nola familiaren txandakatzea.*
- b) *Familiako beste kide batzuekin bizi diren 60 urte baino gehiagoko pertsonak, beharrezkoa bada familiari laguntzea zaintza eta konpainia zereginetan.*
- c) *60 urte baino gehiagoko pertsonak, beren narriaduragatik edo gizarte bakartzeagatik laguntza eta trebezia sozialak behar badituzte beren gizarte harremanak eta gizarte integrazioa edo partaidetza mantendu, hobetu edo handitzeko.*
- d) *Mendekotasun egoeran dauden 65 urte baino gehiagoko pertsonak (39 puntu baino gehiagoko puntuazioa mendekotasuna baloratzeko baremoan), baldin eta preskripzio teknikoak hala gomendatzen badu.*

7. artikulua.- Familia unitatea

Arautegi honetan ezarritakoaren ondorioetarako, familia unitatea honako hauek osatua izango da:

- *zerbitzuaren onuraduna bera;*
- *haren ezkontidea edo harekin ezkontzaren pareko harremanez lotuta dagoen pertsona, legez aitortuta eta behar bezala egiaztatua;*
- *ondorengo adingabeak, betiere eskatzaileak guraso ahala badu eta haiek ekonomikoki mantentzen laguntzen badu, partzialki edo osorik.*
- *18 urtetik gorako seme-alabak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira.*
- *ikasketa akademiko arautuak egiten ari diren 18 eta 25 urte bitarteko ondorengoak, betiere eskatzaileak guraso ahala badu eta haiek ekonomikoki mantentzen laguntzen badu, partzialki edo osorik.*

8. artikulua.- Sarrera betekizunak

Arautegi honetako 6. artikuluan adierazitako egoeraren batean izateaz gainera, eskatzaileak honako sarrera betekizun hauek bete beharko ditu:

- a) Administrazio betekizunak:
 - *Eskaera egiten duen egunean, Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea eta hartan erroldatuta jarraitzea zerbitzuak irauten duen bitartean. Betekizun honetatik salbuetsi ahal izango dira familia txandakatzean dauden pertsonak. Arautegi honetako 6.2 artikuluan ezarritakoaren barruan daudenek, Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egon behar dute eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua jasotzeko eskaera egiten den egunaren aurreko azken 12 hilabeteetan, eta hartan erroldatuta jarraitu beharko dute zerbitzuak irauten duen bitartean.*
 - *Preskripzio teknikoak adierazi behar du eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua haren beharrak edo egoera artatzeko baliabide egokia dela.*
- b) Beharizan betekizunak:



- *Laguntza behar izatea adineko pertsonen eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuak artatzen dituen beharrianak betetzeko.*
- *Kasuan kasuko tratamenduari uko ez egitea, gaixotasun mental bat edo infekzio gaixotasun kutsakorra izanez gero.*
- *Ez edukitzea zerbitzuaren funtzionamenduan edo hartako bizikidetzan nahasmendu larria sor dezakeen portaera arazorik edo jokaerarik, edo pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeenik.*
- *Zerbitzuaren beraren horniduraren helmenetik eta ahalbideetatik kanpoko osasun arreta berezitu edo iraunkorrik behar ez izatea.*

9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan ezarritakoaz gainera, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

— *Duintasuna: pertsona guztiak erabateko errespetuz, zuzentasunez eta ulerkortasunez tratatu behar dira, modu pertsonalizatu eta indibidualizatuan, eta bakoitzaren nahiak, erlijio edo kultura faktoreak, eta egoera fisiko edo psikikoak kontuan izan beharko dira. Hori guztia segurtasun eta higiene baldintzarik onenetan egin behar da, eta arrazoizko epeetan.*

— *Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna: dagokien informazio pertsonal guztian du eragina, bai pertsona diren aldetik daukaten intimitatean, bai espedientean edo beraiei pertsonalki dagokien edozein agiritan ageri diren datuen tratamenduan.*

— *Beharrianen ebaluazioa: langileek erabiltzaileen beharrianen ebaluazio profesionala egin behar dute, kontuan izanik erabiltzailearen beraren deskribapena, laguntzen sare naturalaren datuak eta beste zerbitzu batzuetan egon litezkeen aurretiazko informazioak. Ebaluazio horren emaitzak pertsona bakoitzari jakinarazi behar zaizkio. Prestazioen eskaera onartzen ez bada, erreklamazio bideen berri eman behar zaio.*

— *Arreta plan indibidual bat edo arreta pertsonalizatuko plan bat: ebaluazioan oinarrituta, pertsona bakoitzak bere beharretara egokitutako arreta plan indibidual bat izan beharko du. Erraz ulertzeko moduan idatzi beharko da eta erabiltzaileei eta haien zaintzaileei eman eta azaldu beharko zaie. Horretan honako hauek azaldu beharko dira: prestazioak, horiek ematen dituzten pertsonak, koordinazioaren arduraduna den langilea eta larrialdietarako kontaktu telefono bat. Ebaluazioa berrikusiko den data adierazi behar da.*

— *Autonomia: Pertsona guztiak modu independentean jarduteko eta pentsatzeko eskubidea daukate, kalkulaturako arrisku maila bat ere beren gain hartuz. Beren bizi estiloa eta parte hartu nahi duten jarduera eta zerbitzuak hauta ditzakete, eta nahi dituzten erabakiak hartu. Horretarako, informazio egokia eta ulergarria eduki behar dute.*

— *Informazioa: Erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuetan sartzeko behar den informazio guztia edukitzeko eskubidea daukate. Informazio hori modu argi, xehe eta ulergarrian eman behar zaie.*

— *Zerbitzua EAEko edozein hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea.*



10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gainera, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

— *Informazioa ematea: Beren beharrianak ebaluatzeko eta, beharrezkoa bada, banakako arreta plana edo arreta pertsonalizatuko plana betetzeko behar den egiazko informazioa eman behar dute.*

— *Barne araudia betetzea: Erabiltzen duten zerbitzuaren barneko antolaketa eta funtzionamendu arauak ezagutu eta bete behar dituzte.*

— *Bizikidetzako arauak betetzea: Gainerako pertsonen eskubideak errespetatu behar dituzte, bereziki, erabiltzaileen eta profesionalen pribatutasuna eta duintasuna. Informaziorik eskuratu badute, haren konfidentzialtasuna errespetatu behar dute.*

— *Instalazioak zaintzea: Zentroetako altzariak, ondasunak eta instalazioak zaindu eta behar bezala erabili behar dituzte.*

— *Hitzorduak errespetatzea: Zerbitzua jasotzeko ezarritako egunak eta orduak errespetatu behar dituzte. Arrazoiren batengatik ezin badute hitzordura joan, aldez aurretik jakinarazi beharko dute.*

— *Beren gizarte eta ekonomia egoeran aldaketa esanguratsurik izanez gero, horren berri eman behar diete gizarte zerbitzuei, nahiko denbora lehenago eta betiere hura gertatzen den unetik 30 egun igaro baino lehen, dagokion zerga ordenantzan ezarritakoaren arabera.*

— *Zerbitzua jasotzeko eskubide aitortuan eragina izan lezakeen aldaketarik badago haien egoeran, horren berri eman behar diote organo eskudunari, aldaketa hori gertatu eta hurrengo 15 egunen barruan.*

Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eten edo azkentzeko prozedura abiaraziko da, araudi honetan araututako prozedurarekin bat etorritik.

11. artikulua.- Eskatzaileen zerrenda

Eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren eskatzaileen zerrenda, zerbitzua esleitzeko ordena ezartzeko erabiltzen den tresna da, eta arautegi honen I. eranskinean jasotzen den sarrerako baremoa aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera egiten da esleipena.

Aurreko atalean aurreikusitako eskatzaileen zerrendan jasotako pertsonen espedientea berrikusteko eskatu ahalko dute, behar bezala egiaztatuz, inguruabar pertsonalak aldatzearen ondorioz jasotako balorazioa alda badaiteke.

12.-. artikulua. Zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzeko eskatzea



Arautegi honetan arautzen den eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko, aurretik interesdunak eskaera egin behar dio erakunde eskudunari, horretarako prestatutako inprimaki normalizatuan. Eskatzaileak eskaera sinatu behar du eta udalak horretarako gaituta daukan edozein erregistrotan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako moduan aurkeztu.

Interesdunak eskaerari uko egin diezairoke prozesuaren edozein unetan, eta hori egin nahi izanez gero, idatziz eskatu beharko du. Horren ondorioz, espedientea artxibatu egingo da.

Halaber, gizarte laneko profesionalak txostena eman ahal izango du espedientea artxibatzeko, eskatzaileak edo haren ordezkariak idatziz uko egin badio.

13.-. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskariarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- *NANaren fotokopia, edo beste edozein identifikazio dokumentu baliokide.*
- *Familia liburua, familia unitatean 18 urte baino gutxiagokorik baldin badago.*
- *Mendekotasunaren edo desgaitasunaren balorazioa, bakar-bakarrik balorazio hori beste autonomia erkidego batean egin bada.*
- *Egoera ekonomikoari buruzko datuak:*
 - *Eskaera aurkeztu aurreko hamar urteetako ondasun higiezin eta higigarrien gaineko zinpeko adierazpena.*
 - *Pertsona fisikoen errentaren zergaren azken aitortpenaren fotokopia, edo, bestela, aitortpena egiteko betebeharririk ez dagoela dioen Ogasuneko ziurtagiria (azken hori ez da beharrezkoa izango aitortutako azken ekitaldian zergak Araban ordaindu badira).*
 - *Egungo diru sarreraren egiaztapena, edozein kontzeptu dela eta: pentsioak eta gizarte aurreikuspen publikoko prestazioak, pribatuak edo atzerrikoak, nominak, enpresa jardueren etekinak etab.*
 - *Kapital higiezinaren ondoriozko etekinen diru sarreraren ziurtagiria, egonez gero.*
 - *Banku posizio eguneratu guztien ziurtagiria, eta kapital higigarriko etekinak.*
 - *Eskatzaileak Arabako lurraldetik kanpo dituen jabetzen titulartasuna eta katastro balioaren egiaztagiria.*
 - *Ezarritako prezioa erakunde edo kontu korrante jakin baten bidez ordainduko da hilerio; hori dela eta, erakundea nahiz kontu korrontearen zenbakia jakinaraziko dira.*
 - *Arautegi honetako 6.2 artikuluko a), b) eta c) letretan xedatutakoaren barruan daudenentzat, lehen mailako arretako zentroaren txosten mediko eguneratua.*
 - *Udaleko gizarte zerbitzuen ustez interesekoa izan daitekeen beste edozein agiri.*



Eskatzaileak ez badu nahi bere egoeraren balorazioa egiterik edo ez badu modu frogagarrian justifikatzen, haren egoera ekonomikoa aintzat hartzeari uko egiten diola ulertuko da eta, horrenbestez, zerbitzua ordaintzeko ezarritako gehieneko tarifa ordaindu beharko du, eta 0 puntu lortuko du I. eranskineko (Sarrerako baremoa) V. atalean adierazten den egoera ekonomikoaren balorazioan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikulua aplikatuz, herritarrek ez dute aipatutako agiriak aurkezteko betebeharririk izango agiri horiek dagoeneko administrazioaren esku baldin badaude. Horretarako, interesdunek dagokion agiria zein erakundetan eta noiz aurkeztu duten jakinarazi beharko dute. Udaleko edo foru gizarte zerbitzuek ezin badituzte aipatutako agiriak lortu, interesdunari berriz ere aurkezteko eskatu ahalko diote.

Eskaerarekin batera aurkezten den dokumentazioa osatu gabe baldin badago, edo gaizki badago, eskatzaileak 10 eguneko epea izango du antzemandako okerrak zuzentzeko edo osatzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezan. Hala egiten ez badu, eskaerari uko egingo diola ulertuko da.

Eskatzaileak eta, hala badagokio, familia unitateko gainerako kideek udalari eta Arabako Foru Aldundiari baimena emango diete berari dagozkion datuak egiaztatu edo lortzeko bidezko diren kudeaketak egiteko. Datu horiek eskatzaileak araudi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko baino ez dira erabiliko eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko baliabide ekonomiko eta betekizunak egiaztatzeko.

Datu faltsuak emateak eta datuak ezkutatzekak eskatzailea kanpo geratzea ekarriko du. Horrez gain, beste ardura batzuen erantzule egitea ere ekar dezake.

14.-. artikulua. Tramitazioa

Erabiltzaileen beharrianen ebaluazioa eta gizarte txostenaren proposamena egitean Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako zehaztasunei erreparatuko zaie.

A) BEHARRIZANEN EBALUAZIOA

- *Eskatzailearen beharrianen ebaluazioa, balorazioa eta izapidetzea eskatzailearen etxebizitzari (edo, hala badagokio, etxebizitza ibiltariari) dagozkion udal gizarte zerbitzuen gizarte lan arloko teknikariek egingo dituzte.*
- *Udaleko gizarte zerbitzuetako teknikariek dokumentazioa aztertuko dute eta egin beharreko kudeaketa eta jarduketa oro egingo dute honako alderdi hauek aztertzeko:*
 - *Eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko laguntza beharrianak, norbere burua zaindu, jaiki eta ohean sartu, jantzi, oinez ibili, jan, garbitu eta esfinterren kontrola edukitzeari lotutakoak.*
 - *Gizarte eta familia babesa: elkarrekin bizi diren pertsonen eta gizarte ingurunearekiko harremana aztertuko dute, ikusteko zer gaitasun eta eskuragarritasun duen familia eta gizarte sareak eskatzailearen arreta beharrianen aurrean erantzuteko.*



- *Etxebizitzaren egoera, higiene, ekipamendu, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzei dagokienez, laguntza teknikoen beharrianak eta ingurunean duen kokapena.*
- *Egoera ekonomikoa.*

B) GIZARTE TXOSTENA - PROPOSAMENA

Udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte laneko zerbitzu teknikoek Banakako Arreta Programa prestatuko dute, edo bestela, Arreta Plan Pertsonalizatua. Dokumentu horietan honako hau zehaztuko da:

- *Eskatzaileak zerbitzua jasotzeko eta eskaera aurkezteko baldintzak betetzea.*
- *Bidezkoa bada, baldintzetan salbuespena izateko arrazoituta proposamena.*
- *Eskatzailearen eta, hala badagokio, familia unitatearen inguruabar pertsonal, familiar eta sozialak.*
- *Bidezkoa bada, zerbitzua emateko proposamen arrazoitua.*
- *Bidezkoa bada, salbuespenezko zerbitzuen proposamen argudiatua.*
- *Bidezkoa bada, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.*

15. artikulua.- Ebazpena

Eskabidea aztertu eta baloratu ondoren, eta txosten soziala eman eta gero, dagokion proposamen teknikoa prestatuko da, eta erakunde eskudunera igorriko da. Erakundeak ebazpen argudiatua emango du, eskatutako zerbitzua jasotzeko izateko eskaera baietsiz ala ezetsiz.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak espedientea izapidetzeko epea, gehienez ere, hilabete izango da, eskaera sartzen denetik aurrera.

Ebazpena gehienez bi hilabeteko epean eman beharko da eskaera udal erregistroren batean jasotzen denetik. Epe hori etengo da eskaerak zuzentzeko eskatzen bada (jakinarazpena egiten denetik hura betetzen den edo, bestela, emandako epea igarotzen den arte), edo eskatzailearen autonomiaren balorazioari buruzko nahitaezko txostena eskatu behar bazaio Arabako Foru Aldundiari, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutako gainerako kasuetan ere.

Aurreko atalean jasotako epea igaro eta gero berariazko ebazpenik eman ez bada, ebazpena emateko betebeharrean eragin gabe, eskaera atzera bota dela uler daiteke, interesdunak berraztertzeko errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzea nahi izanez gero.

Aldeko ebazpenak honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- *Bidezkoa bada, eskatzailea zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan jasotzea.*
- *Zerbitzuaren esleipena, honako hauek zehaztuz: zerbitzuaren iraupena, intentsitatea eta kostua, baita onuradunak egin beharreko diru ekarpena ere.*



- *Halaber, ebazpenean adierazi behar da zerbitzua jasotzeko eskubidea aitortzeak berekin dakarrela eskatzaileak (eta, hala dagokionean, haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukanak ere) aitortpenean eragina izan dezakeen aldaketa oro jakinarazi beharko diola erakunde eskudunari 15 egun naturaleko epean, aldaketa gertatzen denetik aurrera.*

Aurkako ebazpenak horretarako arrazoiak azaldu beharko ditu, eta kasu hauetan eman beharko da:

- *8. artikuluan jasotako betekizunak ez betetzea.*
- *Eskaera eragin zuten beharrianak eskatzaileak berak edo senideen laguntzarekin edo beste baliabide pertsonal batzuekin egoki betetzeko aukera dagoenean.*
- *Laguntzaren ezaugarriak direla-eta edo eskatzailearen bizitokia dela-eta laguntza hori beste administrazio publiko baten eskumena bada.*
- *Zerbitzuak erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duen langilearentzat arrisku fisiko eta/edo psikikoak sor ditzakeela baloratzea.*
- *Behar bezala arrazoitutako beste arrazoi batzuk.*

Hartutako ebazpena (baiezkoa nahiz ezezkoa dela) legeak ezartzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinarazi behar da eta haren aurka bidezkoa den errekurtoa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik jarri ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Baiezko ebazpena, hala dagokionean, zerbitzua eman behar duen erakundeari ere jakinaraziko zaio eta hark zerbitzuaren prestazioaren kontratuan jasotako epean bete beharko du.

16. artikulua. Premiazko egoerak

Salbuespenez, eta premia larriko kasuei erantzuteko, udalaren gizarte zerbitzuek proposatuko dute zerbitzua berehala ematea eta hastea, eta presako prozedurari jarraituz izapidetuko da. Holakoetan, onuradunak gehienez 48 orduko epean jaso ahal izango du adineko pertsonen eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua.

Gehienez 15 egun naturaleko epean izapidetuko da eskaera, prozedura arruntari jarraituz.

17. artikulua. Zerbitzua onartzea

Zerbitzuan onartua izateko, zerrendaren ordenari jarraituko zaio, eta lortutako puntuazio globala hartuko da kontuan, araudi honen I. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorritik eskaera aztertu ondoren.



Puntuazio berdina lortu duten eskaeren kasuan, I. graduko mendekotasuna (mendekotasuna baloratzeko baremoan 25-39 puntu) dutenen eta mendekotasun arriskuan (mendekotasuna baloratzeko baremoan 23 eta 24 puntu) daudenen eskaerak lehenetsiko dira.

18. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa.

Udalaren gizarte zerbitzuek etengabeko jarraipena egingo dute zerbitzua onuradunen beharrianetara egokitzen dela ziurtatzeko, eta bidezkoak diren aldaketak proposatuko dituzte eta onuradunekin batera ebaluatuko proposatutako helburuak lortu diren.

Aldizka ebaluazioak egin ahalko dira onuradunak eskatzen badu, zerbitzua ematen duen erakundeak eskatzen badu edo protokolo eta kontratuetan ezarri bezala.

19. artikulua.- Egokitzapen aldia

Erabiltzaile guztiek hiru hilabeteko probaldia gainditu beharko dute.

Adinekoen eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua erabiltzen duten pertsonak, egonaldiaren lehenengo hiru hilabeteetan, haren ezaugarrietara eta funtzionamendura moldatzeko aldi egongo dira. Ingurune fisiko eta sozialean integratu ahal izateko behar duten laguntza tekniko eta pertsonala jasoko dute.

Gizarte zerbitzuetako teknikariek eta, hala dagokionean, zerbitzua kudeatzen duen entitateko profesionalek, une oro erabiltzailearekin komentatuko dituzte sortzen diren arazoak, eta ondo moldatzea lortzeko behar diren konponbideak bilatuko dira.

Erabiltzailearekin batera irtenbide bateratuak aplikatzen saiatu ondoren, erabiltzaileak zerbitzura egokitzeko zailtasunak dituela edo alderantziz gertatzen dela antzemanetz gero, edo zerbitzuak pertsonaren beharrianak egoki betetzen ez dituela jotzen bada, egoera aztertu egingo da eta oinarritzko gizarte zerbitzuen txostenaren aurreko proposamena egingo da.

Egindako proposamena erabiltzaileari jakinarazi beharko zaio, eta hark 15 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.

Alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena egingo zaio erakunde eskudunari, eta hark ebazpen arrazoitua emango du. Ebazpenaren arabera pertsona zerbitzutik kanpo utzi behar bada, alternatiba bat proposatu beharko da, egonez gero.

Hartutako ebazpena (baiezkoa nahiz ezezkoa dela) legeak ezartzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinarazi behar da eta haren aurka bidezkoa den errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik jarri ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

20. artikulua. Zerbitzua etetea

Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arrazoi hauengatik etengo da:

a) Erabiltzailea ospitale batean egotea, aldi baterako.



b) Erabiltzailea aldi baterako bertan ez egotea, gizarte baliabide edo osasun eta gizarte baliabide batera jo behar izan duelako.

c) Erabiltzailea bertan ez egotea urtean berrogeita bost (45) egun baino gutxiagoko aldiaz, zerbitzuan sartu zen azken egunetik aurrera. Tarte hori egoera berezietan luzatu ahalko da. Erabiltzailea familiaren txandakatze egoeran baldin badago, tarte hori luzatu egingo da, txandakatze epeak kontuan hartuta.

d) Erabiltzaileak 10. artikuluan jasotako betebeharren bat betetzen ez badu, baina betebeharrak ez betetzea zerbitzua eteteko arrazoi ez denean.

e) 8. artikuluan ezarritako betekizunen bat aldi baterako galtzea.

Eguneko arretarako zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren ezarriko da zerbitzua etenda dagoen bitartean erabiltzaileak egin beharreko ekarpena.

Aurreko atalean azaldu diren d) edo e) etete arrazoiak gertatzen badira, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak horren berri eman beharko dio Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, eta horrek erabiltzaileari edo, hala badagokio, haren ordezkariari jakinaraziko dio. Erabiltzaileak eta haren ordezkariak 15 egun baliioduneko epea izango dute alegazioak egiteko.

Alegazioen izapidea beteta, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposamena egingo dio organo eskudunari, ebatz dezan. Haren edukia honako hauetako bat izango da:

a) Zerbitzuaren titular moduan jarraitzea.

b) Eskubidea etetea eta zerbitzuaren titularra izateari uztea aldi baterako.

Proposamena jasota, ebazteko eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua hartuko du.

Hartutako ebazpena (baiezkoa nahiz ezezkoa dela) legeak ezartzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinarazi behar da eta haren aurka bidezkoa den errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik jarri ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

21. artikulua.- Zerbitzua azkentzea

Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arrazoi hauengatik azkenduko da:

a) Erabiltzaileak edo haren lege ordezkariak idatziz uko egitea.

b) Emakida ebazpenean ezarritako aldia bukatzea.

c) Erabiltzailea hiltzea.

d) Erabiltzailea beste udalerrri batera joatea, familiaren txandakatze kasuak direnean salbu.



- e) *Onuraduna beste baliabide edo programa batean sartzea, hori bateraezina bada adinekoen eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuarekin.*
- f) *Zerbitzuaren prestazioa sorrarazi zuen beharrian kausa desagertzea.*
- g) *Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo datu faltsuak ematea.*
- h) *Zerbitzua jaso ahal izateko eskatutako baldintzetako bat galtzea.*
- i) *Zerbitzuari jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez ematea.*
- j) *30 egun naturaleko epean ez ematea egoera sozioekonomikoan gertatu diren aldaketei buruzko informazioa.*
- k) *Aldi baterako etena bukatu ondoren zerbitzura ez bueltatzea.*
- l) *Zerbitzua ematen duten langileei edo horren onuradunei eraso fisiko edo psikologikoa egitea.*
- m) *Araudi honetan erabiltzaileentzat xedatutako betebeharrak etengabe urratzea (ordainagiriak epez kanpo ordaintzea, behin baino gehiagotan ez ordaintzea, etab.).*
- n) *Arrisku fisikoak edo psikikoak egotea erabiltzailearentzat zein zerbitzua ematen duten langileentzat, udal zerbitzu teknikoan balorazioa eginik.*
- o) *Zerbitzua 6 hilabete baino gehiagoko aldi jarraikiaz etetea, etena benetan hasi zen egunetik aurrera kontatuta.*
- p) *Urte naturalaren barruan 45 egun baino gehiagoz zentroan ez egotea, bidezko arrazoirik gabe.*
- q) *Behar bezala argudiatutako beste arrazoi batzuk.*

Aurreko atalean d) eta p) bitarteko letretan azaltzen diren zerbitzua azkentzeko arrazoietakoren bat badago, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak horren berri eman beharko dio erabiltzaileari edo, hala badagokio, haren ordezkariari, eta erabiltzaileak edo haren ordezkariak 15 egun balioduneko epea izango dute horri buruz alegazioak egiteko.

Alegazioen izapidea beteta, atal teknikoak proposamena egingo dio organo eskudunari, ebatz dezan. Haren edukia honako hauetako bat izango da:

- a) *Zerbitzuaren titular moduan jarraitzea.*
- b) *Eskubidea amaitzea eta zerbitzuaren titularra izateari uztea behin betiko.*

Proposamena jasota, ebatzeko eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua hartuko du.

Hartutako ebazpena (baiezkoa nahiz ezezkoa dela) legeak ezartzen dituen epeetan eta formalitateekin jakinarazi behar da eta haren aurka bidezkoa den errekurtsioa jarri ahal izango



da, *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren Ieko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro eta errekurtsorik jarri ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.*

Aurretik esandakoa ez da aplikatuko eskubidea heriotzagatik edo ukoagatik amaitzen den kasuetan. Horrela izanez gero, organo eskudunak espedientea artxibatuko du, esan bidezko ebazpena hartu ondoren.

Az kentze ebazpenaren ondoren erabiltzaileak berriz ere zerbitzua jasotzeko asmoa agertuz gero, beste eskaera bat aurkeztu beharko du, eta araudi honetan ezarritakoaren arabera izapidetu beharko da.

Az kendu ondoren erabiltzaileak zerbitzuko zenbait ordainketa egin gabe baditu, berriz ere zerbitzua eman aurretik ordaindu gabeko zenbatekoak ordaintzeko eskatuko zaio.

22. artikulua. Adineko pertsonen Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren barne funtzionamenduko arauak

II. eranskinean xedatutakoaren arabera barne funtzionamenduko arauak izango ditu adineko pertsonen Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuak.

23. artikulua. Adineko pertsonen Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren prezio publikoa

Adineko pertsonen Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuagatik erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa une bakoitzean indarrean dagoen zerga ordenantzak zehaztuko du.

Zerbitzua ematen duten langileek, eta, hala badagokio, enpresa esleipendunak, ez dituzte dohaintzak eta ordainketa gehigarriak onartuko, aurreko paragrafoan finkatutakoaz gain. Enpresa esleipendunak bete behar hori bete dadin zainduko du.

24. artikulua. Finantzaketa

Adineko pertsonen eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua honela finantzatuko da:

- *Onuradunak zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du, erakunde eskudunaren ebazpenean onuradunaren gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta eta kasuan kasuko zerga ordenantzak horri buruz ezartzen duenaren arabera ezarritako zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa sinatuz, ezinbestekoa baita zerbitzua jasotzen hasteko.*
- *Administrazio publikoak bere gain hartuko du prezioetik onuradunak ordaindu beharreko ekarpena kenduta geratzen den zenbatekoa, kasuan kasuko zerga ordenantzan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.*

25. artikulua. Eguneko Arretarako Landa Zentroaren erabiltzailearen ekarpena



Arautegi honetan arautzen den eguneko arretarako landa zentroaren erabiltzaileak zerbitzuaren prezio publikoa ordaindu beharko du; prezioa erabiltzailearen beraren gaitasun ekonomikoa aintzat hartuz kalkulatu da, dagokion zerga ordenantzan ezarritakoaren arabera.

Erabiltzailearen ekarpena kasuan kasuko zerga ordenantzan jasotako elementuen arabera finkatuko da.

Gaitasun ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edo ezkututzen badira, eskaera artxibatuko da edo zerbitzua iraungi egingo da, harrezkero abian bada, hori egiteak ekar ditzakeen erantzukizunetan eragin gabe. Administrazio eskudunak erabiltzaileari laguntzaren bat edo prezioan hobariren bat eman badio, itzultzeko prozedura abiaraziko da.

Erabiltzaile bakoitzaren banakako ekarpena berrikusi ahal izango da, ofizioz edo erabiltzaileak edo haren ordezkariak eskatuta, kasuan kasuko zerga ordenantzan ezarritakoaren arabera hura aldaraz dezaketen inguruabar edo betekizunetako edozein aldatzen denean.

Berrikusteko prozedurak, ofizioz nahiz alde batek eskatuta, arautegi honetan zerbitzua emateko ezarritako prozedura arruntari jarraituko dio.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudiaren laburpen bat prestatuko da, erabiltzaileei emateko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honetako arauekin kontraesanean dauden maila bereko nahiz txikiagoko arau guztiak indargabetuta geratu dira.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau ALHAOn argitaratu eta hamabosgarren egunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA **SARBIDE BAREMOA**

Sarbide baremoak eskatzaileen zerrenda antolatzeko irizpideak eta zerbitzua jasotzeko lehentasuna ezartzen ditu, gizarte diagnostikoaren arabera.

BAREMOAREN EGITURA:

<i>DIMENTSIOAK</i>	<i>PUNTUAZIO TARTEAK</i>
<i>Eguneroko jarduerak (oinarrizkoak) egiteko laguntza behar izatea//Osasun eta autonomia egoera</i>	<i>0-30</i>
<i>Bizikidetzeta egoera eta gizarte babesa</i>	<i>0-25-</i>



<i>Etxebizitza edo bizilekuaren egoera</i>	0-10
<i>Egoera ekonomikoa</i>	0-30-
<i>Familia berrelkartzea</i>	5
<i>Guztira</i>	<u>0-100</u>

I. EGUNEROKO JARDUERAK (OINARRIZKOAK) EGITEKO LAGUNTZA BEHAR IZATEA//OSASUN ETA AUTONOMIA EGOERA

Eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko behar duten laguntza maila aztertzean datza (jan, jantzi, garbiketa pertsonala etab.), erabiltzailearen autonomia mailari eusteko eta sustatzeko eta bere ingurunean geratu ahal izan dadin, bizi kalitate maila onarekin.

Balorazio hori egiteko, mendetasuna baloratzeko baremoan lortutako puntuazioa erabiliko da, honela:

Laguntza beharizanaren BAREMOA	Puntuak	
<i>MBB 23-39 puntu</i>	30	<input type="checkbox"/>
<i>MBB >39 puntu</i>	15	<input type="checkbox"/>
<i>MBB < 23 puntu, edo mendekotasuna baloratu gabe</i>	10	<input type="checkbox"/>
EGUNEROKO JARDUERAK (OINARRIZKOAK) EGITEKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (gehienez 30 puntu)		<input type="checkbox"/>

II. BIZIKIDETZA EGOERA ETA GIZARTE BABESA:

Beharizanak estaltzeko erabiltzaileak duen laguntza mailaren berri izatean datza, aldagai hauen arabera:

- Bizikidetza egoera: *Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den. Beste nagusi batzuekin (senideak edo lagunak) edo beste lagun edo senide batzuekin batera bizi den.*
- Sare informala izatea, eskuragarri izatea eta irisgarri izatea *(senideak edo lagunak) eta sare horrek emandako babes motak.*

Balorazioa egiteko baremo hau erabiliko da:

Gizarte babesaren eta familiaren BAREMOA	Puntuak	
I.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, tratu txar fisiko edo psikikoak, abusu ekonomikoa, abandonu egoera edo oinarrizko arretan zabarkeria larria bizi duena, edo familia gatazka edo desegiturak	25	<input type="checkbox"/>



2.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, familia eta gizarte babesik gabe, horrelakorik ez duelako, edo ohiko zaintzaileak ezin diolako arretarik eskaini arrazoi objektibo batengatik.	20	<input type="checkbox"/>
3.-Bakarrik bizi den pertsona, gizarte edo familia babes sare oso txikia duena; behar duen arretari dagokionez, ematen dioten babes puntuala ez da aski. / Karga gehiegi edo gizarte egoera ezegonkorrak dituzten familiak.	15	<input type="checkbox"/>
4.- Bakarrik bizi den pertsona (edo ezintasun edo desgaitasunen bat daukan pertsona batekin); gizarte edo familia babes sarea du, babesa ematen diona, baina ez da nahikoa behar duen arretarako, edo harekin bizi den/diren pertsona/k osasun arrazoiengatik mugatuta daude, edo lan eginbeharrak dituzte adinekoari arreta egokia ematea zail egiten dutenak.	10	<input type="checkbox"/>
5.- Beste norbaitekin bizi den pertsona (menpekotasunik gabeko pertsona), gizarte edo familiaren babes sarea duena, baina ez da aski behar duen arretari dagokionez.	5	<input type="checkbox"/>
6.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, irisgarri eta prest dagoen gizarte edo familiaren babes sarea duena.	0	<input type="checkbox"/>
GIZARTE ETA FAMILIA EGOERAREN PUNTUAZIOA (gehienez 25 puntu)		<input type="checkbox"/>

III.- ETXEBIZITZA EDO BIZILEKUAREN EGOERA.

Pertsona modu autonomoan moldatzeko eta ingurunea kontrolatzeko baldintzagarri izan daitezkeen etxebizitza edo bizilekuaren ezaugarriak aztertzean datza.

Aintzat hartu beharreko aldagaiak irisgarritasuna eta bizigarritasuna dira, baremo honen arabera:

Etxebizitza edo bizilekuaren egoeraren BAREMOA			
IRISGARRITASUNA		Puntuak	
A. Eraikinaren kanpoaldea	➤ Ez du sarbide arazorik.	0	<input type="checkbox"/>
	➤ Eskailerak jaitsi edo igo behar ditu edo arkitektura oztoporen bat gainditu etxebizitzara iristeko // Hirigunetik urrun dago, oinarrizko baliabideetara iristeko zailtasunak daude.	2	<input type="checkbox"/>
B. Eraikinaren barrualdea	➤ Ez du sarbide arazorik.	0	<input type="checkbox"/>
	➤ Atarian eskailerak ditu igogailura edo etxebizitzara iristeko, eta ez dago eskailerak saihesteko sistemarik. // Ez du igogailurik.	2	<input type="checkbox"/>
C. Etxebizitzaren barrualdea	➤ Ez dago arkitektura oztoporik.	0	<input type="checkbox"/>
	➤ Arkitektura oztopoak daude, mugikortasuna eta ondo moldatzea oztopatzen dutenak; ez dago egokitzapen edo segurtasun neurririk.	4	<input type="checkbox"/>
IRISGARRITASUNA, GUZTIRA (A+B+C)			<input type="checkbox"/>



BIZIGARRITASUNA	Puntuak	
➤ Ez du bizigarritasun arazorik.	0	<input type="checkbox"/>
➤ Ez da mantentze lan egokia egin.	1	<input type="checkbox"/>
➤ Egitura arazoak ditu (hezetasuna, sukalderik, komunik ez; espazio gutxiegi; itoginak; instalazio elektriko eta komun instalazio eskasa).	2	<input type="checkbox"/>
BIZIGARRITASUNA, GUZTIRA		<input type="checkbox"/>
ETXEBIZITZAREN EGOERAREN PUNTUAZIOA (gehienez 10 puntu)		<input type="checkbox"/>

IV.- EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa aztertzeko familiaren hileko gaitasun ekonomiko kalkulatu hartuko da kontuan, zerga ordenantzan ezarritako inguruabarretan. 1.500 eurotik behera 12 tarte ezartzen dira, mailaz maila puntuatuko direnak:

Familiaren hileko egoera ekonomikoaren BAREMOA	Puntuak	
500,00 € edo gutxiago	30	<input type="checkbox"/>
501,00 € - 600,00 €	27	<input type="checkbox"/>
601,00 € - 700,00 €	24	<input type="checkbox"/>
701,00 € - 800,00 €	21	<input type="checkbox"/>
801,00 € - 900,00 €	18	<input type="checkbox"/>
901,00 € - 1.000,00 €	15	<input type="checkbox"/>
1.001,00 € - 1.100,00 €	12	<input type="checkbox"/>
1.101,00 € - 1.200,00 €	9	<input type="checkbox"/>
1.201,00 € - 1.300,00 €	6	<input type="checkbox"/>
1.301,00 € - 1.400,00 €	3	<input type="checkbox"/>
1.401,00 € - 1.500,00 €	1	<input type="checkbox"/>
1.500,00 € baino gehiago	0	<input type="checkbox"/>
Ez du nahi bere egoera ekonomikoa baloratzetik	0	<input type="checkbox"/>
EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (gehienez 30 puntu)		<input type="checkbox"/>

V.- FAMILIA BERRELKARTZEA

Eskatzailearen ezkontidea edo harekin ezkontzaren pareko lotura (behar bezala egiaztatua) duen pertsona eguneko arretarako landa zentro baten erabiltzailea bada. **5 puntu.**



II. ERANSKINA
EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAREN BARNE FUNTZIONAMENDUKO
ARAUAK

- Orokorrak

- *Arautegi honen edukia ezagutu beharko da, eta betetzen saiatu.*
- *Zentroaren barruan eta zentroaren jarduerekin zerikusia duen beste edozein lekutan bizikidetzako, higieneko eta elkarrenganako errespetuko arauak errespetatzen saiatu behar da, giro atsegina sortzeko.*
- *Zentroetan eskaintzen diren instalazioak eta zerbitzuak behar bezala erabili behar dira.*
- *Aurkitzen den edozein objektu zentroko langileei edo oinarrizko gizarte zerbitzuko langileei eskuratu behar zaie.*
- *Zentrora objektu baliotsurik eta diru askorik ez eramatea gomendatzen da.*
- *Ezarritako ordutegiak errespetatu behar dira. Horiek aldatzen diren guztietan, nahiko denbora lehenago jakinaraziko da.*
- *Ahoz edo idatziz jakinarazten diren arauak eta oharrak kontuan izan behar dira, eta horiek betetzen saiatu behar da, zentroak ondo funtzionatzeko.*

- Otorduak

- *Adierazitako orduetan emango da bazkaria.*
- *Dieta berezia izan ahal da, hori gomendatzen duen txosten medikoa aurkezten bada. Menua iragarki oholean jarriko da. Menua iragarki-taulan jarriko da.*
- *Ezin da jantokian janaririk sartu edo atera, ezta tresnarik ere (hau da, mahai tresnak, edalontziak, platerak, ahozapiak eta abar).*
- *Begirunez jaten saiatu behar da, besteentzat desatsegina den ezer egin gabe.*

- Arropa eta garbiketa pertsonala

- *Zentroak arropa garbitzeko zerbitzua onartuta daukaten pertsonen arropa bakarrik garbituko du.*
- *Pertsona bakoitzak garbiketa pertsonaleko tresnak edukiko ditu zerbitzuan, baita ordezeko arropa sorta bat ere.*
- *Ordezko arropa markatzea komeni da, inor ez dadin nahastu.*
- *Itxura pertsonal txukuna izatea erabiltzailearen eta inguruan bizi diren guztien ongizaterako faktorea da. Horregatik, erabiltzailea behar bezala janztea eta garbitzea gomendatzen dugu, noski, betiere bere gustu eta ohiturak errespetatuz. Arropa eta oinetakoak ahalik eta erosoan izan behar dira.*
- *Bainatzeko zerbitzua onartuta dutenek bainua erabateko intimitatean hartuko dute, horretarako finkatuta dagoen ordutegian. Erabiltzaileak bainatzeko zailtasunak baditu, zerbitzuko langileek lagunduko diote.*

- Segurtasuna eta osasun publikoa

- *Zerbitzuko instalazio guztietan dago debekatuta erretzea.*



- **Langileekiko harremanak**

- *Zerbitzuko langileak erabiltzailearen esanetara daude, jasotzen duen arreta kalitate gorenekoa izan dadin.*
- *Edozein pertsonarengana jo daiteke, betiere adeitasunez eta errespetuz.*
- *Kasu egingo zaie zerbitzuko langileek zerbitzu osoaren mesedetan eta erabiltzailearen mesedetan ematen dituzten jarraibideei.*
- *Zerbitzuko langileek lagunduko diete laguntza behar duten pertsonari. Gainera, salbuespen moduan, erabiltzaileei ahaide edo lagunak eta boluntarioek lagundu ahal izango diete, hala adostu baldin badute zerbitzuaren arduradunarekin edo hartako langileekin.*
- *Pertsona guztiak, zentroko erabiltzaile nahiz langile izan, tratuan erabateko errespetua, zuzentasuna eta ulerkortasuna, modu pertsonalizatuan, jasotzeko eskubidea daukate.*

- **Familiekiko harremanak**

- *Familiekiko komunikazioa behar bezain ohikoa eta arina izan behar da, batez ere erabiltzaile berria moldatzen ari den aldian.*
- *Erabiltzailea eguneko arretarako landa zentrorra joateko ez bada, ahalik eta azkarren jakinarazi beharko da, absentziaren berri jakiteko eta garraio zerbitzua (halakorik egotekotan) ez dadin joan haren bila.*

- **Garraioa**

- *Egokitutako garraio zerbitzua onartuta izanez gero, zentroan sartu baino lehen egiten den elkarrizketan garraioari buruzko datuak jakinaraziko dira, hala nola ordutegiak, geltokiak, etab.*
- *Egun jakin batzuetan ez bada garraio zerbitzua behar, beharrezkoa eta premiazkoa da horren berri ematea adineko pertsonen eguneko arretarako landa zentroari edo udalaren gizarte zerbitzuari, ez oztopatzeko beste erabiltzaile batzuen ordutegiak. Hala egitea posible ez bada, salbuespen moduan, ibilgailuaren gidariari jakinarazi ahal zaio. Komeni da zentrorra ez joatearen arrazoen berri ematea.*

- **Irteeren araudia eta bisita ordutegiak**

- *Erabiltzaileak, erabiltzaile izate hutsagatik, zentroan programatutako jardueretan parte hartzeko eskubidea dauka. Arrazoiren batengatik zentrotik irten behar badu, irten daiteke, horrek ez baldin badu oztopatzen zentroaren dinamika eta alde zurretik jakinarazten bazaio profesional taldeari. Arrazoiren batengatik ezin bada bakarrik irten, zerbitzuko langileek, lagunak, ahaideak edo erabiltzailearekin harremana dutela frogatzen duten boluntarioek lagunduta irten ahal izango da.*
- *Emandako zerbitzu batera edo guztietara egun batean edo gehiagotan huts egiteko asmoa badu, horren berri eman beharko die adineko pertsonen eguneko arretarako landa zentroko langileei edo udalaren gizarte zerbitzuetako langileei.*
- *Ahaideen edo lagunak bisitak alde zurretik jakinarazi beharko zaizkie eguneko arretarako landa zentroko langileei, inguruabar berezietan izan ezik, programatutako jarduerak eta zentroaren dinamika alferrik ez oztopatzeko.*

- **Erabiltzaileak parte hartzeko bideak**

- *Zerbitzuan parte hartzea faktore garrantzitsua da, eguneroko bizitzan eta funtzionamendu orokorrean oso eragin positiboa duena.*
- *Erabiltzaileak zuzenean parte har dezake eguneko arretarako landa zentroaren kudeaketan, profesional taldeari edo udalaren gizarte zerbitzuari iritziak edo*



iradokizunak adieraziz antolaketari buruz, funtzionamenduari buruz eta jardunbide profesionalei buruz, zerbitzuaren kalitatean edo haren eskubideetan zuzenean edo zeharka eragina duten gaietan.

- *Zentroaren dinamika soziokulturalean parte hartzea boluntarioa, erabiltzaileei egokitua eta beraien proposamenei irekia izango da. Ahal den neurrian erantzungo zaie erabiltzaileen eskaerei.*
- *Erabiltzaileekin kontsultatuko dira haiengan zuzeneko eragina duten erabaki guztiak. Erreferentziako ahaideari ere kontsultatuko zaio, hala eskatzen bada edo egokituzat jotzen bada.*

- **Erreklamazioak, kexak eta iradokizunak egiteko prozedura.**

- *Erabiltzaileak, edo berak horretarako izendatzen duen konfiantzazko pertsonaren batek, iradokizun, erreklamazio edo kexaren bat egin nahi bada, zuzenean edota erreklamazio orri baten bidez egin ahal izango du. Erreklamazio orria udalaren gizarte zerbitzuari eskatu ahal dio. Konfidentzialtasuna une oro ziurtatuko da.*
- *Udalaren gizarte zerbitzuko arduradunak jasoko ditu kexak eta formalki izapidetu.*
- *Erabiltzaileak kexa idazteko zailtasunik edukiz gero, aholkua eta laguntza eskainiko dio gizarte laneko profesionalak, eta eskaera bakoitza izapidetu eta hari erantzun zehatza emango dio.*
- *Gainera, iradokizunentzako gutunontzi bat dago zerbitzuan. Bertan utz daitezke iradokizunak; konfidentzialtasuna une oro ziurtatuko da.*

BIGARRENA.- *Jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.*

HIRUGARRENA.- *Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea, bidezkoa bada, eta osoko bilkurak behin betiko onespena ematea. Inongo erreklamazio edo iradokizunik egiten ez bada, behin betiko onetsita geratuko da ordura arte behin-behinekoa zen onspena, osoko bilkuraren beste erabaki baten beharrik gabe.*

LAUGARRENA.- *Erabaki hau eta Araudiaren testu osoa ALHAOn argitaratzeko agintzea.*

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.”

Gai horren aldeko txostena egin zuen Batzorde Soziosanitarioak, Berdintasunekoak, Immigraziokoak eta Adinekoenak, 2021eko otsailaren 9an egindako bilkuran. Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak Batzordearen aldeko irizpenari dagokionez, adierazi du haiek esan zutela Udalbatzan jakinaraziko zutela beren jarrera.

Esku-hartzeak amaitzean, AIARA BATUZ taldearen eta EAJ-PNV taldearen aldeko botoekin eta EH Bildu taldearen abstentzioarekin, onetsi egin da idatzitako proposamena, idatzi den moduan.

4.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, Aiarako Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko programa onestekoa. Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiarako



Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko programa onesteko erabaki-proposamena; horrek honako hau dio:

“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planen zuzenbide-oinarria da Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen Hogeita Batgarren Xedapen Gehigarria; horrek honako hau adierazten du: “...Autonomia-erkidegoek eta udalek, euren buruak antolatzeko duten gaitasunarekin bat, enplegu-planak egiteaz gain, giza baliabideak arrazionalizatzeko beste sistema batzuk ezarri ahal izango dituzte euren berezitasunetara egokituriko programen bidez, eta lege honen 18. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan aipatutako neurri guztiak edo batzuk gehitu ahal izango dituzte, baita borondatezko eszedentzia eta aurretiazko erretiroa sustatzen dituzten pizgarriak ere”.

IKUSI DA.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22. artikulua honako hau xedatzen du:

«22. artikulua

1. Euskal Herri Administrazioek, beraien buruak antolatzeko duten gaitasunekin bat etorritik eta langileen ordezkariarekin bitartekotza lanak eginez, haien berezitasunetara egokituriko eta funtzionarioei zein lan kontratadun langileei loturiko giza baliabideak arrazionalizatzeko programak ezarri ahal izango dituzte. Programa horiek, alor bakoitzerako giza baliabideak behar bezala erabiltzeko jarduerak jasoko dituzte, aurrekontuen mugen barruan eta gobernu organoek ezartzen dituzten langileen politiken gidalerroak betez.

2. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek enplegu-planei gehitu ahal izango dizkiete aplikatu beharreko araudi orokorrean ezartzen diren neurri guztiak edo batzuk, baita **borondatezko eszedentzia eta aurretiazko erretiroa sustatzeko pizgarriak edo zerbitzu aktiboari uko egiteko edo horretan behin betiko baja hartzekoak ere...**”

IKUSI DA.- Aiarako Udaleko alkate-udalburuak Udaleko langileen ordezkariarekin 2021eko otsailaren 3an izandako bileraren akta. Bilera hori egin zuten proposatutako Aiarako giza baliabideak arrazionalizatzeko programan ezarritako baldintzak negoziatzeko. Bertan, sindikatu-ordezkariak adierazi zuen, gainerako udaleko langileekin gaia adostu ondoren, horrekin ados daudela eta ados daudela Udalbatzak programa onestearekin, idatzitako moduan.

AINZAT HARTU DA.- Udaleko langileen adina oso altua da eta proposatutako programaren sarreran adierazitako arrazoimenak.

Horregatik guztiagatik, udalbatza osoari proposatu zaio honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Hasiera batean onestea Aiarako Udalaren giza baliabideak arrazionalizatzeko programa. Horren testua honako hau da:

“AIARAKO UDALAREN GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA



SARRERA

Aiarako Udalak, udaleko zerbitzuen maila hobetzeko eta dituen giza baliabide murrizten erabilera optimizatzeko, eta aintzat hartuta datozen urteetan langile horietako asko erretiratuko direla langileen adina oso altua delako, aintzat hartu da beharrezkoa izango dela langileen belaunaldi-aldaketa ahalik eta modu arrazionalenean egitea.

Langile gehien adina oso altua denez (batez-besteko adina 53,3 da), zuzenean edo zeharka I. kapituluko gastua handituko da, ordezkatzegatik zein patologiengatik sortutako baja medikuengatik, adinarekin larrizten baitira. Gainera, gastua handituko da antzinatasunagatik ematen diren ordainsariengatik. Era berean, aintzat hartu behar da zenbat eta hirurteko gehiago izan, egun libre gehiago izan beharko dituela langileak.

Aintzat hartu behar da Administrazio Publikoen arazo orokorretako bat, eta, zehazki, Aiarako Udalaren arazoetako bat, langileen zahartzea dela; izan ere, datozen urteetan nahitaezko erretiroen kopuru masiboa egongo da. Ondorioz, beharrezkoa da neurri gehigarriak hartzea, ezinbesteko belaunaldi-aldaketa horri aurrea hartzeko eta leuntzeko.

Horregatik guztiagatik, Aiarako Udalak, UDALHITZaren 95. artikuluan ezarritakoaren arabera, giza baliabideak arrazionalizatzeko programa bat onesteko beharra adierazi du, Udaleko langileen aitorpena bermatu eta horiei babes juridikoa emateko. Beraz, UDALHITZaren 95. artikuluan ezarritako gizarte-ekintza gisa aurretiazko erretiroen kasuan prima bat ezarriko da.

Aipatutako neurriaren oinarria eta berezko xedea da erretiroen pentsioa murriztearen ondoriozko galera ekonomikoa arintzea edo konpentsatzea. Horren ondorioz, erretiro aurreratua hartu ahal izango da, horrek Udalari eta, oro har, herritarrei ekarriko dizkien ondorio positibo eta onuragarrien kalterik gabe, langileen plantilla gaztetzearen ondorioz, eta antzinatasun kontzeptuan ordainsari-kostuak aurreztea.

Aiarako Udala udaleko zerbitzuak ematean arazo honek izango dituen ondorioak badakizki, eta, ondorioz, uste du komenigarria dela, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22.2 artikulua esparruan, bajak sustatzeko sistema bat ezartzea, langileak progresiboki gaztetu ahal izateko.

Xede orokor hori aintzat hartuta, giza baliabideak arrazionalizatzeko programa hau aurkeztu da, langile publikoen mailakatutako erretiroa lortzeko, baldintza ekonomiko onetan.

Programa honen oinarri juridikoa Funtzio Publikoaren Erreformatarako Berehalako Neurriak hartzeko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen Hogeita Batgarren Xedapen Gehigarriak. Horrek honako hau dio zehazki:

*«Autonomia-erkidegoek eta udalek, euren buruak antolatzeke duten gaitasunarekin bat, enplegu-planak egiteaz gain, giza baliabideak arrazionalizatzeko beste sistema batzuk ezarri ahal izango dituzte euren berezitasunetara egokituriko programen bidez, eta lege honen 18. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan aipatutako neurri guztiak edo batzuk gehitu ahal izango dituzte, baita borondatezko eszedentzia eta **aurretiazko erretiroa** sustatzen dituzten pizgarriak ere».*



Bestalde, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22.1 eta 2 artikuluen atalek honako hau xedatzen du:

«22. artikulua

1. Euskal Herri Administrazioek, beraien buruak antolatzeko duten gaitasunekin bat etorriz eta langileen ordezkariekin bitartekotza lanak eginez, haien berezitasunetara egokituriko eta funtzionarioei zein lan kontratudun langileei loturiko giza baliabideak arrazionalizatzeko programak ezarri ahal izango dituzte. Programa horiek, alor bakoitzerako giza baliabideak behar bezala erabiltzeko jarduerak jasoko dituzte, aurrekontuen mugen barruan eta gobernu organoek ezartzen dituzten langileen politiken gidalerroak betez.

*2. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek enplegu-planei gehitu ahal izango dizkiete aplikatu beharreko araudi orokorrean ezartzen diren neurri guztiak edo batzuk, baina **borondatezko eszedentzia eta aurretiazko erretiroa sustatzeko pizgarriak edo zerbitzu aktiboari uko egiteko edo horretan behin betiko baja hartzekoak ere...**”*

Programa honetan, beraz, eta Udaleko funtzionarioen ordezkari sindikalekin adostu ondoren, giza baliabideak arrazionalizatzeko plan bat osatu nahi da. Horrek udaleko zerbitzuen eraginkortasun-maila handitzea baimenduko du eta emandako zerbitzuetara egokitu ahal izango dira langileak, gastuei eusteko politikaren esparruan.

AIARAKO UDALAREN GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA, TESTU ARAUEMAILEA.

1. artikulua.- Bitarteko materialak eta pertsonalak.

1.- Materialak.-

Programa honen aplikazio-eremu materiala langileen borondatezko erretiroagatiko edo zerbitzu aktiboari uko egiteagatiko primak edo pizgarriak onartzea da, bai eta horien zenbatekoa finkatzea ere, ondoren ezartzen diren baldintza eta betekizunekin.

2.- Langileen arloa.-

Programa hau Aiarako Udaleko funtzionarioei aplikatuko zaie (Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzaitzako lanpostuan ari den pertsona barne), bertan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. artikulua.- Kontzeptuak eta baldintzak eta bateraezintasunak.

Programa hau aplikatzeko, kontzeptu horiek ondoren zehazten diren moduan ulertuko dira, kasu bakoitzean adierazten diren neurriei dagokienez:

- **Erretirorako adina, edo Gizarte Segurantzaren prestazioak edo mutualitate-erregimena edo murrizketarik gabeko prestaziorako behar den denbora:** erreferentzia horiek adin errealar buruzkoak direla ulertuko da konpentsaziorik edo koefiziente murriztailerik ez dagoenean, eta Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatearen erregimenaren



arabera zenbatu beharrekoa, kotizaziorako edo prestazioetarako adin-konpentsazioak, murrizketak edo araubide bereziak gertatzen direnean.

- Urterokoa: primaren edo pizgarriaren zenbateko zehatza zehazteko, hilabetetik beherako denbora zatiak hilabete oso gisa kontatuko dira. Urteko zenbatekoa kalkulatzeko, enpleguak erretiro aurreratua edo jarduneko zerbitzuari uko egitea edo borondatezko behin betiko baja gertatzen denean esleiturik dituen urteko ordainsari gordinak hartuko dira kontuan. Ordainsari horiek honako hauek bilduko dituzte: oinarrizko soldata, antzinasuna, aparteko pagak, lanpostu-mailako osagarria, berariazko osagarria eta eskatzaileak jasotzen dituen plusak, betiere azken urteko dedikazio araubidearekin.
- Adinagatiko erretiro aurreratua: koefiziente murriztaileak eta konpentsazio konputagarriak aplikatu ondoren, Gizarte Segurantzaren araubideko adin arrunta baino lehen langile bakoitzarentzat gertatzen dena.
- Gutxieneko antzinasuna: Primak edo pizgarriak eskuratzeko baldintza izanen da, bai erretiro aurreratuagatik, bai borondatez uko egiteagatik edo behin betiko baja hartzeagatik, Aiarako Udalean gutxienez 10 urteko epean zerbitzu aktiboan aritu izana, gertaera eragilea gertatu den egunaren aurre-aurreko aldian, eta azken 15 urteetan gutxienez 10 urteko zerbitzuak eman izana.
- Ezinbesteko baldintza da erretiro aurreratuaren eta borondatezko uko egitearen edo behin betiko bajaren pizgarriak jasotzeko: ordaindutako beste edozein jarduera egiteari uko egitea. Horretarako, primaren edo pizgarriaren onuradunak, ekitaldi bakoitzaren hasieran, Gizarte Segurantzari eta/edo Ogasunari buruzko lan-egoeraren txostena aurkeztu beharko du. Aipatutako informazioa aurkezteko eginbeharra betetzen ez bada, onuradunak ordaindutako zenbateko osoa itzuli beharko dio Udalari. Txosten horiek nahitaez aurkeztu beharko dira pizgarria kobratu ondoko hamar urteetan.
- Bateraezintasunak: Erretiroagatiko, uko egiteagatiko edo borondatezko bajagatiko kalte-ordainak jasotzea bateraezina da Gizarte Segurantzak edo dagokion mutualitateak edozein ezintasun mota onartzearekin, baldin eta Aiarako Udalean enpleguaren behin betiko baja zehazten bada, pizgarriaren erretiroaren edo uko egitearen aurretik. Egoera horren ondorioz, onuradunak jasotako prima edo pizgarria itzuli beharko du.

3. artikulua.- Zerbitzuen zerrenda amaitzea erretiro aurreratu indemnitzatuaren bidez.

Programa honen 1.2 artikuluan adierazitako Aiarako Udaleko langileek, Programa hau indarrean dagoen bitartean Udalean zerbitzu aktiboan badaude, Udalarekin duten zerbitzu-harremana amaitu ahal izango dute. Interesdunak hala nahi izanez gero, erretiro aurreratuaren era joko dute, Gizarte Segurantzari buruzko Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 208. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kasu horretan, bi (2) urte baino gehiagoko aurreratzea izanez gero, urtebeteko (1) kalte-ordaina dagokio; aurreratzea txikiagoa bada, kalte-ordaina dagokion zati proportzionala izango da.

4. artikulua.- Zerbitzuen zerrenda amaitzea erretiro aurreratua baino lehenagoko indemnitzatuaren bidez.



1. Programa honen 1.2 artikuluan adierazitako Aiarako Udaleko langileek, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 208. artikuluan interesdunak hala nahi duelako, erretiro aurreratua modalitatean parte har badezakete, Udalarekin duten zerbitzu-harremana amaitu ahal izango dute aldez aurretik, eta, horretarako, enplegatu publiko izateari uko egin ahal izango diote, GSLOren 208. artikulua arabera erretiroa hartu baino bi (2) urte lehenago, gehienez.

Kasu horretan, bi (2) urte baino gehiagoko aurreratzea izanez gero, urtebeteko (1) kalte-ordaina dagokio; aurreratzea txikiagoa bada, kalte-ordaina dagokion zati proportzionala izango da.

2. Artikulu honetako primak edo pizgarriak ez du aurreko artikulua neurriari dagokion kalte-ordainik ematen (kalte-ordaina jaso duen erretiro aurreratua).

4. Udalak, enplegatu publiko izateari uko eginez gero, Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenaren kostuaren zenbatekoa ordainduko du, kalte-ordainaren zati gisa, uko egiteagatik dagokion denboraldirako.

5. artikulua.- Langile publikoa izateari uko egitea.

Hileko ordainsarien kopuruaren arabera dagokion zenbatekoa urteko ordainsari gordinaren arabera kalkulatu da, eta hileroko bat urteko ordainsari osoaren 1/14 dela ulertu da, eta erretiroa aurreratu den denborarekiko proportzioan aplikatu da, baldin eta adierazitako urtekoekin bat ez badator, eta langile bakoitzaren egoera eskatzerakoan.

Borondatezko erretiro aurreratua hartuz gero, onuradunek Gizarte Segurantzaren edo Mutualitatearen aintzatespena, erretiro-mota, konpentsazioak, onurak edo aplikatutako murrizketak justifikatu ondoren ordainduko da kalte-ordaina.

7. artikulua.- Aurrekontu-baliabideak.

Planera atxikita dauden eta kalte-ordainez lagundutako jarduketa guztien kopuruaren muga aurrekontuko ekitaldi bakoitzean Plana gauzatzeko ezarriko den aurrekontuaren erabilgarritasuna izango da.

Ondorio horietarako, ekitaldi bakoitzeko Udal-aurrekontuak edo, bidezkoa bada, luzatutako aurrekontuak, hasiera batean edo behar diren aurrekontu-aldaketan bidez, Plan honen indarraldiko aurrekontu-ekitaldi guztietan, hura gauzatzearen ondoriozko betebeharrak betetzeko aurrekontu-zuzkidurak jasoko ditu.

8. artikulua.- Eskakizunak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Programa honetan aipatzen diren neurriak hartzeko eskakizun gertaera eragilearen eguna baino hiru (3) hilabete lehenago aurkeztu beharko dira, eta gutxienez bi (2) hilabete lehenago.

Kalte-ordainaz lagundutako erretiro aurreraturako edo enplegatu publiko izateari uko egiteko eskakizunekin batera, interesdunak Gizarte Segurantzaren edo kasuan kasuko mutualitatearen agiria aurkeztu beharko du; agiri horretan, erretiroa hartzeko adina zehaztu



beharko da, kasu bakoitzean zenbatu behar diren konpentsazioak edo koefiziente murriztaileak ezarri ondoren.

Era berean, Aiarako Udalak egoki iritzitako beste edozein agiri eskatu ahal izango du eskaera tramitatzeke eta/edo horri buruzko datuak egiaztatzeke.

9. artikulua.- Indarraldia.

Programa honen testu osoa Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indargabetu arte egongo da indarrean. Hala ere, hasieran onesteko jarraitutako prozedura bera erabiliko da aldaketak onartzeko.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.- Programa hau aplikatzen den lehenengo urtean (2021) ez dira 8. artikuluan eskakizunak aurkezteko ezarritako epeak aplikatuko.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA”.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai egoteko 30 egun baliouduneko epea irekitzea, ebazpena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkoztat jotzen dituen alegazioak. Alegazio horiek Udalbatzak aztertuko ditu proposamena behin betiko onesteko. Hasiera bateko onespeneraren inguruko alegaziorik aurkeztzen ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

HIRUGARRENA.- Agintzea erabaki hau argitaratzea eta Araudiaren testu osoa ALHAOn argitaratzea.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.”

Espediente honen aldeko irizpena eman zuen Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea Eta Kontuen Berezia Informazio Batzordeak 2021eko otsailaren 9an eginiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.

5.- 2021. urterako Aiarako Udaleko langileen ordainsaria handitzeko Udalbatzaren erabaki-proposamena.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2021. urterako Aiarako Udaleko langileen ordainsaria handitzeko Udalbatzaren erabaki-proposamena. Horrek honako hau dio:

“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA



AINTZAT HARTU DA.- 2020ko abenduaren 31n BOEn argitaratu zen abenduaren 30eko 11/2020 Legea, 2021. urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

AINTZAT HARTU DA.- Aipatutako legearen 1. kapituluko III. tituluan (Sektore publikoko zerbitzuko langileen gastuak), eta, zehazki horren 18. artikuluan, 2021 ekitaldirako ordainsariak handitzeko mugen gaia lantzen da.

IKUSI DIRA.- EUDELeK egindako gomendioak, 2021erako ordainsariak handitzeari buruzkoak.

IKUSI DIRA.- 2021 urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 18. Bi artikuluan proposatzen da Udalbatzak honako ERABAKI hau hartzea:

Lehenengoa.- 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera udaleko langileen soldatak handitzea 2021 ekitaldirako, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 0,9an.

Bigarrena.- Era berean, 2021 ekitaldirako Alkatetzaren ordainsariak handitzea, aipatutako ehuneko berdinekin 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Hirugarrena.- Adierazitako handitzeak aplikatzean jaso ez diren atzeratutako zenbatekoak ordaintzea.

Laugarrena.- Sindikatuaren ordezkariari erabakia jakinaraztea, baita Udaleko Kontu-hartzailetza eta Diruzaintzari.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.”

Espediente honen aldeko irizpena eman zuen Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea Eta Kontuen Berezia Informazio Batzordeak 2021eko otsailaren 9an eginiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.

6.- Aiarako Udalak Amukatu Elkartearekin Lankidetzahitzarmena onesteko erabaki-proposamena, 2021 urtea.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiarako Udalak Amukatu Elkartearekin Lankidetzahitzarmena onesteko erabaki proposamena, 2021 urterako. Horrek honako hau dio:

ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Aiarako Udalak babestu egin nahi duela Amukatu Elkartek gauzatzen duen jarduera soziala; elkartearen xedea, hain zuzen ere, Aiara udalerriko katuen koloniak kontrolatzea eta horien egoera hobetzea da.

IKUSI DA.- Aipatu elkartek harreman zuzena du Laudioko eta Urduñako albaitaritzazentroarekin katuen koloniak kudeatzeko proiektuan, batez ere esterilizazio-lanei eta higiene zein saneamenduari loturiko jardueri dagokienez.



IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkartearen arteko lankidetzahitzarmenaren proposamena, 2021 ekitaldirako, Aiara udalerrian bizi diren katuen kolonien baldintza higieniko eta sanitarioak kontrolatzeko eta hobetzeko lanak sustatzeko.

AINZAT HARTU DA.- Hitzarmen honek dakartzan gastuei aurre egiteko kreditu nahikoa eta egokia dago 2020ko eta 2021erako luzatutako udal-aurrekontuan.

Horregatik guztiagatik, udalbatza osoari proposatu zaio honako **ERABAKI** hau hartzea:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2021 ekitaldirako, Aiara udalerrian bizi diren katuen kolonien baldintza higieniko eta sanitarioak kontrolatzeko eta hobetzeko lanak sustatzeko.

“AIARAKO UDALAREN ETA
AMUKATU ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA,
2021. URTEA

Arespalditzan, 2021ekoaren(e)(a)n

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, Gentza ALAMILLO UDAETA, Ayuntamiento de Ayala-Aiarako Udaletxeko alkate-udalburua (NAN zk.: 44.686.448-R), Ayuntamiento de Ayala-Aiarako Udaleko idazkari M^a del Carmen Rojo Pitillas andreak lagunduta, ekitaldiaren fede eman baitu.

Beste aldetik, andrea, adinez nagusikoa (NAN zk. :) AMUKATU ELKARTEAREN presidentea (Kaleko katuak jaso, antzutu eta askatzea).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkari gisa, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritik.

Bigarrena, AMUKATU ELKARTEAREN (kaleko katuak jaso, antzutu eta askatzea) izenean (IFK: G01532589). Horren identifikazioa eta ordezkari gaitasuna atxikitako egiaztagiraren bidez egiaztatuta da.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetzahitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE

1. AMUKATU ELKARTEA (kaleko katuak jaso, antzutu eta askatzea) irabazi asmorik gabeko elkarte delarik, Aiarako haraneko katu-kolonien egoera kontrolatu eta hobetzeko helburua duena. Horretarako, legearen aplikazio esparrua betetzeko, honako jarduerak hauek garatzen ditu:

- Katuak jaso, antzutu eta askatzea.
- Kolonien osasun eta higiene-saneamendua.



- Koloniak bizi diren eremuak egokitzea.
- Kolonien ongizaterako oinarrizkoak diren beharrak asetzeta.

II.- Aiarako Udalak, Amukatu Elkarteak eskualde honetan egiten duen lan soziala kontuan hartuta, erabaki du jarduera hori babestea, besteak beste, hitzarmen honen bidez. Hitzarmen horrek arautzen du katuen hiriko koloniak kontrolatu eta esterilizatzeko urteko plana garatzeko emango zaion urteko dirulaguntza. Honako jarduketak hauek egin beharko dira plana betetzeko:

- URTEKO PLANAREN ANTOLAKUNTZA

Amukau Elkarteak, udalerraren plano baten bidez, hasiera batean geografikoki kolonia guztiak identifikatuko ditu eta horien biztanleria eremu edo auzoka banatuko du. Era berean, kolonia bakoitzeko dauden katuen gutxi gorabeherako kalkulua egingo du, baita horien biziraupen egoeraren ingurukoa ere.

- ANIMALIAK JASOTZEA, ESKU-HARTZEA ETA HORIEN ZAINKETA.

Amukatu Elkarteak, Laudio eta Uruñako Albaitaritza zentroekin lankidetzan, katuak nola jaso antolatuko du, ondoren aipatutako kliniketara eramateko. Katuak han daudenean, kolegiatutako albaitariak horien osasunaren balorazio orokorra egingo dute, eta, beharrezkoa bada, horiek antzutu dituzte eta belarrarian mozketak bat egingo zaie ondoren identifikatu ahal izateko.

Animaliak jaso eta garraiatzeko lana Amukatuko boluntarioek egingo dute lankidetzako albaitaritza zentroekin lankidetzan. Horretarako, honako material hauek erabiliko dituzte: tranpa-kaiolak, eskularruak, arropa egokia, botikina, prismatikoak, amuzki-elikagaiak, mantatxoak eta garraiorako ibilgailua. Mantentze-lanak eta gastuen kudeaketa aipatutako albaitaritza zentroen ikuskapenarekin eta instalazio egokietan egingo da, eta ez da inoiz animalia bat bere osasuna ona dela ziurtatzeko behar duguna baino denbora gutxiago egongo. Ez dira animaliak inondik inora hilko, tratamendu egokiekin gaixotasunak gainditu ditzakete. Gainerako animaliak garbitu, tratatu eta antzutu ditugu, ebakuntza osteko prozesu erraza izateko eta ahalik eta azkarren sendatzeko.

Adoptatu ezin diren, baina tratatuak izan diren animalia guztiei belarrarian marka bat egingo zaie operazioa egin bitartean, anestesia baliatuta. Animalia horiei guztiei identifikazio zenbakia, izena eta haien koloniaren kokapena adierazten duen fitxa bat irekiko zaie.

Ebakuntzaren ondoren ez badago zailtasunik, adoptatutako katuak salbuetsita, katuak ahalik eta azkarren jaso ziren toki berera itzuli beharko dira.

- KOLONIAK EGOKITU ETA IKUSKATZEA.

Beharrezkoa balitz, kolonia bizi den eremua egokitu egingo da; tresnak, elikagai-hondarrak eta beste edozein zabor kenduko da, animaliek zein pertsonak sortutakoa, kolonia mantendu ahal izateko. Garbiketa amaituko da koloniaren eremua produktu fitosanitarioekin tratatu beharko balitz, higiene egoki bat mantendu ahal izateko.

Eremu bat ezarriko da (aurretiaz Udalarekin eta inplikaturako komunitateekin adostutakoa) eta bertan edontziak, askak eta babesleku egokiak (etxolak, olanak) jarriko dira atsedean hartu dezaten eta eguralditik beren burua babestu dezaten.

- PLANAREN INGURUKO INFORMAZIOA ETA DIBULGAZIOA.



Amukatu Elkarteak informazio, sentsibilizazio eta dibulgazio lana gauzatuko du hitzaldi, informazio-hilabete, eta abarren bidez. Horiek hainbat materialetan oinarrituko dira, bereziko eskuorrietan, informazio-ohartxoetan eta karteletan, herritarrei une oro egingo dugun lana jakinarazteko. Animaliak dituzten pertsonen zuzendutako komunikazioa eta sentsibilizazioa bereziki landuko da, eta katuen elikadurarekiko eta beste animalia baten egotean izan beharreko jarrerarekiko jarraibideak emango dira, edozein gatazka konpondu ahal izateko. Hitzarmen honen esparruan sortutako material guztiek hitzarmen honetan jasotako lankidetzari egin beharko diote erreferentzia. Horrez gain, Amukatu Elkarteak egindako material oro dibulgatu baino lehen Udaleko zerbitzu teknikoei aurkeztu beharko zaie.

III.- *Aplikatzekoa den legeria zehatz-mehatz betez, eta Lankidetzaren hitzarmenak sinatzeko Toki Erakundeek duten eskumenari jarraiki, bi aldeek Lankidetzaren hitzarmen hau formalizatzen dute, eta jarraian adierazitakoak bete beharko dituzte*

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- *Aiarako Udalak hitzarmen honekiko duen xedea da Amukatu Elkarteak urtean zehar garatuko dituen ekimen eta jarduerak sustatzea, KATUEN KOLONIAK KONTROLATU ETA HOBETZEA jarduerari dagokionez.*

Horrek baztertu egiten ditu partikularren katuak eta jabeen antzutzeari dagokionez erantzukizun faltagatik sortzen diren kumaldiak.

BIGARRENA.- *Aiarako Udalak gauzatuko duen sustapen-ekimenaren edukia Amukatu Elkarteak 2021. urtean zehar egingo dituen deskribatutako jardueren gastuen dirulaguntzan zehazten da.*

HIRUGARRENA.- *Aurretiaz aipatutako jarduerak sustatzeko administrazio honek emango du dirulaguntza eta horren garapenerako beharrezko gastuak ordainduko ditu. Hitzarmen honi dagokion dirulaguntza urtean gehienez ere MILA EUROKOA (1.000) izango da.*

LAUGARRENA.- *Urteko dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez ere 1.000 €) adierazitako zenbatekoari dagokion dokumentazioa aurkeztuko da:*

- a) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako dirulaguntza guztien aitortzea.*
- b) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean daudela adierazten duen egiaztagiria, eta hori ez izatekotan, informazio hori Udalak berak eskatu ahal izateko gaitasuna dagokien erakundeei.*
- c) Jarduerari dagokion dokumentazioa:*
 - Diruz lagundutako ekitaldiko Gastu eta Diru-sarreraren balantzea.*
 - Diruz lagundutako ekitaldiaren jarduera-memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta horiek egin izanaren zinpeko adierazpena). Gainera, dauden katuen kolonien deskribapen-laburpen bat sartuko da. Bertan adieraziko da horren garapena, gutxi gorabehera dauden animaliak eta horien garapena, zenbat antzutze egin diren eta hartutako neurrien eraginkortasuna baloratzea.*



- *Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendu-gastua), diru-sarrera eta gastuekin, Aiarako Udalak diruz laguntzen dituen jarduketan dagozkien fakturak eta ordainketa dokumentuak aurkeztuz.*
- *Katuen antzutzak eta higienizatzea egiteagatik albaitaritza zentroek emandako fakturak. Faktura horietan egindako lanak zehatz-mehatz jaso beharko dira. Eta hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jardueri lotutako fakturak.*

Lehen estipulazioan jasotako baldintzak urratuz gero, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

2022ko urtarrilaren 31 baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da Udalak urtean zehar deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin; hala ere, elkarteak ezin izango du hitzarmen honetan deskribatutako jarduera batean ere gainfinantzaketarik izan.

BOSGARRENA.- *Diruz lagunduko diren jardueren exekuzio-epea diruz lagunduko den urtearen denbora-mugetara egokituko da, 2021eko urtarrilaren 01etik 2021eko abenduaren 31ra.*

SEIGARRENA.- *Honako hau izango da ordainketa-modua: Aiarako Udalak adostutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatutakoan Gainerako % 20ari dagokionez, behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.*

Aiarako Udalak edonoiz eskatu ahalko du bidezkoztat jotzen duen informazioa.

ZAZPIGARRENA.- *AMUKATU ELKARTEAK egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzat eta babesa jaso beharko da.*

ZORTZIGARRENA.- *AMUKATU ELKARTEAK hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.*

ALKATE-UDALBURUA Nire aurrean, IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta Sin.: M^a del Carmen Rojo Pitillas

AMUKATU ELKARTEAREN PRESIDENTEA

Sin.: Jaun/andrea

Alkateak eta idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Bigarrena.- *Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.*



Hirugarrena.- Amukatu Elkartearen erabakiaren jakinaren gainean jartzea, hitzarmena sinatzea.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.”

Espediente honen aldeko irizpena eman zuen Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontuen Berezia Informazio Batzordeak 2021eko otsailaren 9an eginiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, erabaki-proposamena idatzi den moduan onestea.

7.- 2020ko Udal-aurrekontuaren likidatzearen berri ematea.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2021eko otsailaren 11ko 2021/93 zenbakiko Alkatetza-dekretuaren bidez 2020 ekitaldiko Udalbatzaren Aurrekontuaren likidatzea onetsi zela. Horren testua honako hau da:

“ALKATETZA-DEKRETUA

2020 ekitaldiari dagokion erakunde honen Aurrekontuaren Likidatzea osatzen duten dokumentuak aztertu dira Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 47. artikulua araberak. Gainera, ikusi da organo kontuhartzaileak aipatutako Foru Arauaren 49.3 artikuluan ezarritako araberak eginiko txostena.

Beraz, alkatetzak EBATZI DU:

Lehenengoa.- Onestea 2020. urterako Korporazioaren Udal-aurrekontuaren Likidatzea. Horren laburpena honako hau da:

2020 EKITALDIAREN AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak
Eskubide likidatu garbiak (+)	2.390.855,23
Aitortutako betebeharrak garbiak (-)	2.268.884,67
UNEKO AURREKONTU GORDINAREN EMAITZA (=)	121.970,56
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak (+)	314.676,98
2020ko finantzazio-gehiegizkoak osotara(-)	149.258,12
2020ko finantzazio-defektuak osotara(+)	0,00
2019ko finantzazio-gehiegizkoak osotara(+)	82.696,59
2020ko finantzazio-defektuak osotara(+)	0,00
(=) UNEKO AURREKONTU GORDINAREN EMAITZA	370.086,01
Ezeztatutako ordaintzeke dauden betebeharrak (+)	4.866,13
Ezeztatutako kobratzeke dauden eskubideak (-)	170,46
ITXITAKO AURREKONTUEN EMAITZA (=)	4.695,67
(=) UNEKO DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	370.086,01
ITXITAKO AURREKONTUEN EMAITZA (=)	4.695,67
2020 EKITALDIAREN AURREKONTUAREN EMAITZA (=)	374.781,68

2020 EKITALDIKO DIRUZAINTZAREN GERAKINA	Euroak
Diruzaintzan eskudirutan dagoen zenbatekoa (+)	675.651,02
Uneko aurrekontuan kobratzeke dauden eskubideak (+)	421.091,16



Itxitako aurrekontuan kobratzeke dauden eskubideak (-)	229.311,38
Aurrekontuz kanpoko kobratzeke dauden eskubideak (+)	462,00
Aplikatu gabeko diru-sarrerak (-)	95,53
Kobratzeke dauden eskubideak guztira	650.769,01
Uneko aurrekontuaren ordaintzeke dauden eginbeharrak (-)	165.226,57
Itxitako aurrekontuaren ordaintzeke dauden eginbeharrak (-)	25.247,63
Aurrekontuz kanpoko ordaintzeke dauden betebeharrak (-)	203.054,39
Ordaintzeke dauden betebeharrak guztira	393.528,59
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (=)	932.891,44
Kobratze zail edo zalantzakoa duten eta kobratzeke dauden eskubideak (-)	192.853,92
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (=)	740.037,52
ERAGINDAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA FINANTZAZIO-GASTUETARAKO (-)	149.258,12
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO (=)	590.779,40

Bigarrena.- Udalbatzari jakinaraztea abenduaren 9ko 641/2020 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiz, Arabako Toki Erakundearen zerga-arauen aplikazioa bertan behera geratu dela, salbuespen gisa eta ondorio eskusiboetarako, 2020 eta 2021erako. Horrek esan nahi du indarrik gabe utzi behar direla egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta ez zaiela aplikatu behar gastu-araua aipatutako urteetan. Hala ere, informazioa emateko eta orientatzeko soilik, 2020ko ekitaldiko egonkortasuna eta gastu-araua kalkulatu dira. Ondorioz, zerga-arau horiek aplikatu izan balira, Aiarako Udalak egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legerian ezarritako egonkortasun-helburua eta gastu-araua bete beharko zituen.

Hirugarrena.- Arabako Foru Aldundiari eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioari bidaltzea onetsitako Likidazioaren kopia bat, hilabete bateko epean.

ALKATE-UDALBURUA
Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Nire aurrean, IDAZKARIA
Sin.: M^a del Carmen Rojo Pitillas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

8.- Kreditu gerakina sartzeko 1/2021 espedientearen berri ematea.- Jarraian, Udalbatzari kreditu-gerakinak sartzeko 1/2021 espedientearen berri eman zaio, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatu beharreko zenbatekoan, Alkatetzaren 2021eko otsailaren 11ko 2021/94 Dekretuaren bidez onetsi zen 2020ko ekitaldiko likidazioaren ondorioz. Horrek honako hau dio:



“AZTERTU DA.- Aurreko aurrekontuaren kreditu-gerakinen txertaketari buruzko espedientea, 2020ko eta 2021era luzatutako indarrean dagoen Udal-aurrekontuen gastuen egoera-orrian.

AINZAT HARTU DA.- Idazkari kontu-hartzaileak adierazitakoaren arabera, espedientea Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 32. artikuluan adierazitako baldintzen arabera dago egina, baita Aurrekontua Gauzatzeko Udal-arauaren arabera ere.

Alkatetzak **EBATZI DU:**

Lehenengoa.- Onestea jarraian adierazitako kreditu-gerakinaren txertatzea:

GASTUEN EGOERA

Gastuen partida	Kreditu-gerakinaren deskribapena	Zenbatekoa
151.227077	UHOLDE-ARRISKUA/HAPOAREN AZTERKETA	81.100,00 €
333.601005	LUIAONDOKO ASKOTARIKO ESPAZIOA EGOKITZEKO AURREKONTUA IDAZTEA (PATXITA)	20.328,00 €
433.643000	MURGA INDUSTRIALDEA BIRGAITZEKO PROIEKTUA IDAZTEA	16.500,00 €
323.211000	IKASTOLA ETA AURRESKOLAKO MANTENTZE- LANAK ETA HORNIKUNTZA	2.770,90 €
151.227072	IRISGARRITASUN PLANA EGUNERATZEA	11.495,00 €
342.609000	UDAL-IGERILEKUEN ALDABELAK ESTALTZEKO OM.	2.904,00 €
335.227006	EUSKARA SUSTATZEA	834,90 €
334.227007	IKASTARO ETA TAILERRAK	357,86 €
	GUZTIRA	136.290,66 €

Txertatu beharreko kredituen zenbatekoa osotara honako hau da: **136.290,66 euro.**

DIRU-SARREREN EGOERA

Aipatutako zenbatekoaren finantzaketa honela gauzatuko da:

Diruzaintzaren soberakina gastu orokorretarako	136.290,66 euro.
GUZTIRA	136.290,66 euro.

Kreditu-gerakinen txertaketen zenbatekoa horiek finantzatzen dituzten baliabideen zenbatekoaren berdina da.

Bigarrena.- Ebazpen hau tinkoa da eta beste izapiderik gabe gauzatu daiteke. Beraz, kontu-hartzaileak aldaketak egin ditzala aurrekontuaren gastu-egoeran, eta aldaketon eragina berehalakoa izan dadila.

Hirugarrena.- Honako ebazpenaren berri ematea udalbatzari egiten den hurrengo osoko bilkuran.



ALKATE-UDALBURUA

Nire aurrean, IDAZKARI ANDREA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Carmen Rojo Pitillas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9.- 2021eko martxoaren 08ko erakunde-adierazpena.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, martxoaren 8a dela eta egindako Erakunde-adierazpenaren testua oinarritzat hartuta eta hiru udal-talde politikoen adostasunarekin, Aiarako Kuadrillako teknikariak adierazpenaren testu bateratu bat idatzi duela. Hori Udalbatzari proposatzeko aurkeztu zaio.

2021eko MARTXOAREN 8a DELA ETA ERAKUNDE-ADIERAZPENA

ZAINTZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisialdi Globalean

Dimensio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaurgarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Hilabete hauetan genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukaezina da: emakumeek beren gain hartu dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; lana galdu edo lan-baldintza are prekarizatuagoak ezarri dizkiete; birusa hartzeko arrisku handiagoa dute, genero-ikuspegiarekin ikertu gabe jarraitzen zuten bitartean; indarkeria matxista areagotu egin da, hari aurre egiteko baliabideak eta baldintza materialak mugatzen ziren bitartean; beste behar batzuk baztertu egin dira, hala nola sexu- eta ugalketa-osasuna edo osasun mentalarekin lotuak; parte-hartze soziopolitikorako aukera eta baldintzak galdu dituzte, etab.: azken batean, eta batez ere kolektibo zaurgarrienetako emakumeei dagokienez, pobretu dira zentzu guztietan, indarkeriaren aurrean babesgabeago daude, haien osasuna okertu egin da, zaintza-lanen zama handiagoa da...

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxeen barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arraza eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakartzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekarietatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiarren, eta, neurritz kanpoko proportzian, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo



zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitorpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekarietateari begiratuz gero Bada garaia zaintzalan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Irtenbidea ez da pandemiaren aurreko egoerara itzultzea, emakume gehienek lehenago ere bizi baitzuten diskriminazioa eta eskubideen urraketa: orain da unea pandemian areagotutako larrialdiei erantzuna emateko, eta, aldi berean, guztiontzako bizitza duina bermatzea eta zaintzea lehentasuntzat joko duen antolaketa sozial, ekologiko eta ekonomikoko sistema baterantzko oinarri sendoak ezartzeko.

Udalak gaude lehen leerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanez gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Gizartean zaintza antolatzeko **ereduari buruzko eztabaida** bultzatzea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitariorantzko bidean.
- **Analisia egitea**, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaurgarrienen egoerari eta beharrezanez buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko **neurriak martxan jartzea**, besteak beste, honako arlo hauetan: bakarrik bizi diren adinekoak, guraso bakarreko familiak, indarkeria matxistaren biktima diren emakume eta haurrak, kalean bizi diren emakumeak, familia-arloko zaintzaileak (soldatadunak eta soldatarik gabekoak), langabeak, etab. Egindakoaren ikuspuntu feminista bermatu beharko da, baita tokiko gizarte-ehuna ere, emakume eta feministaz osaturik batez ere.
- Aurretiaz egindako analisiaren arabera, etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko arretarako zentroaren funtzionamendua eta horren eredu egokitu/berrantolatu eta/edo zabaldu beharko da antzemandako beharrei aurre egiteko. Gainera, laneko baldintzak hobetuko dira eta zerbitzu edo baliabide berriak sustatuko dira indarkeria matxistari aurre egiteko, bereziki krisialdi honetan zehar handitu diren moduetan.
- COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan **genero-ikuspuntua gehitzen** dela bermatzea, **laguntzez eta babes-programez** den bezainbatean.



- *Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea **adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko** tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz, edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.*
- ***Berdintasun Planean** berariaz jasotzen den moduan, emakumeen **ahalduntzean** eragiten jarraitzea, baita zaintzak eta gizonek horietan duten **erantzunkidetasuna** balioan jartzea ere.*
- *Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz, eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.*
- *Herritarrekiko erantzunkidetasuneko tokiko itun bat sustatzea, gizarte-ehuna, administrazioa eta besteak beste merkataritza, nekazaritza eta industria barne hartuta; horren bidez, beharrezkoak izan daitezkeen zerbitzu publikoak indartuko dira: aholkularitza edo dirulaguntzak.*
- *Ahalduntze Eskolei eta Emakumeen Etxeei nahikoa baliabide bermatzea eta banakako zein taldekako emakumeen, neska nerabeen eta neskatoen ahalduntzerako ekintzak sustatzea, kolektibo feministen aldetik.*
- *Gure herriko emakumeen ehun-soziala indartzea, premisa feministetatik eta ahalduntze-premisetatik.*
- *Zeharka, identifikatu diren udalerriko emakume zein kolektibo feministek parte hartzeko bideak irekiko dira, identifikatu diren jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.*
- *Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zeharlerroa izateko erabiltzen diren **giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak** sendotzea eta babestea.*
- *Tokiko **zaintza-sare komunitarioei babesa** ematea.*

Amaitzeko, herritarrak gonbidatzen ditugu Aiaran antolatutako jarduera eta mobilizazioetan parte hartzera”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onetsi da 2021eko martxoaren 8ko transkribatutako Erakunde-adierazpena onestea, idatzitako moduan.

10.- Aiaraldeko eskualdeko bi enpresetan langileak kaleratzearen inguruko Erakunde-adierazpenaren proposamena. - Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Aiaraldeko bi enpresetan langileak kaleratzearen inguruko Erakunde-adierazpenaren proposamena, Aiarako Udaleko hiru udal-talde politikoek adostutakoa. Horrek honako hau dio:

“ERAKUNDE-ADIERAZPENAREN PROPOSAMENA

Azken bi asteetan 249 kaleratze iragarri dituzte Aiaraldeko bi enpresek.

2021eko otsailaren 4an, Valvospaingo zuzendaritzak 79 langile kaleratuko zituela jakinarazi zuen, eta enpresa erabat itxiko zuela iragarri zuen, hartzekodunen konkurtsu batean egon ostean.



Tubacexeko zuzendaritzak otsailaren 8an jakinarazi zion enpresa batzordeari Amurrioko eta Laudioko plantillako 150 langile kaleratzeko asmoa zuela.

Bi adierazpenak, eskualdean beste negozio txiki eta ertainen galerarekin batera, kolpe latza dira Aiarako eta eskualde osoko industria-ehunarentzat eta enpleguarentzat, enplegu asko galdu direlako eta jarduera murriztu delako eskualdeko bi ekoizpen-zentrotan.

Aiarako Udalak, adierazpen instituzional honen bidez, bere kezka adierazten du bi erabakien aurrean, eta, aldi berean, bere esku dauden xedapen guztiak emateko borondatea adierazten du, enpresek iragarritako neurriak gauza ez daitezen.

- 1. Aiarako Udalak Valvospain enpresako langileei eta kaltetutako familiei elkartasuna adierazten die.*
- 2. Aiarako Udalak elkartasuna adierazi die Tubacexek Amurrion eta Laudion dituen lantegietako langileei eta eragindako familiei, eta enpresa animatu du enplegu-erregulazioko espedientea bertan behera uztera, Amurrioko eta Laudioko lantegietan enpleguari eustea bermatuko duen akordio bat har dadin.*
- 3. Aiarako Udalak enplegua suntsipenagatik kezka adierazi du, eta enpresa estrategikoen jarduera galtzea deitoratu du, enpresa horiek funtsezko eragileak baitira eskualde osoko industria-garapenean. Horregatik, Tubacex Amurrioko eta Laudioko traktore sozioekonomikoa izaten jarrai dezan laguntzeko prest agertu da, baita egoera iraultzeko eta eskualde osoan ohiko jarduera, enplegu eta kalitatezko lan-baldintzen ratioak ahalik eta lasterren berreskuratu ahal izateko lan egiteko ere.*
- 4. Aiarako Udalak kalitatezko enplegua defendatzeko eta, Amurrion zein Aiaraldean etorkizuneko industria-proiektu bati eusteko konpromisoa berretsi du Era berean, Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die modu proaktiboan joka dezatela industria-jarduerari eustearen alde eta kalitatezko enpleguaren alde gure sare ekonomikoan eta, bereziki, lurralderako proiektu estrategikoetan.*
- 5. Aiarako Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari eskatzen dio bizkortu ditzala Aiaraldeko Gizarte eta Ekonomia Suspertzeko Lantaldearen lanak, ahal den neurrian, ahalik eta lasterren aktibatze eskualdearen egoera larriagotzeari aurre egiteko behar diren neurriak.*
- 6. Era berean, Aiarako herritarrei dei egiten diegu gure herriko enpleguaren aldeko ekimenak eta mobilizazioak babestera.”*

Udalbatza jakinaren ganean geratu da eta aho batez onetsi du transkribatutako Aiaraldeko bi enpresetako langileak kaleratzearen inguruko Erakunde-adierazpena, idatzi den moduan.

11.- Alkatetza-dekretuen berri ematea.- Jarraian, 2021/18 eta 2021/94 bitarteko Alkatetza-dekretuen berri eman zaio Udalbatzari, bi horiek barne. Horien guztien xedea, laburki, honako hau da:

“ALKATETZA-DEKRETUEN ZERRENDA.-



- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/18.- BASER COMERCIALIZADORA DE REFERENCIA SA 2020ko 2. seihilekoko jabari publikoko okupazio-tasa likidatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/19.- MJ.O.U.- Izorian instalazio fotovoltaiorako obra-lizentzia ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/20.- MA.M.O.- Murgan instalazio fotovoltaiorako obra-lizentzia ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/21.- EDP COMERCIALIZADORA SAU.- 2020ko 4. hiruhilekoko lurzuaren okupazio-tasaren likidatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/22.- JR.Z.F.- Izoriako etxebizitza batean instalazio fotovoltaiorako obra-lizentzia ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/23.- G.A.O.- Arespalditzako etxebizitza batean instalazio fotovoltaiorako obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/24.- Ned Suministro GLP SAU.- 2020ko 4. hiruhilekoan zehar jabari publikoaren okupazio-tasa likidatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/25.- EDP COMERCIALIZADORA SAU.- 2020ko 4. hiruhilekoko lurzuaren okupazio tasaren likidatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/26.- J.A.A.- Koronabirusaren (covid-19) garapenaren ondoriozko kalte ekonomikoak arintzeko laguntzen helegitea ebaztea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/27.- B.E.A.- Koronabirusaren (covid-19) garapenaren ondoriozko kalte ekonomikoak arintzeko laguntzen helegitea ebaztea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/28.- J.L.Z.L.- Aparkatzeko txartela ordezteira iraungita egoteagatik.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/29.- J.S.G.- Koronabirusaren (covid-19) garapenaren ondoriozko kalte ekonomikoak arintzeko laguntzen helegitea ebaztea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/30.- M.M.G.- Maroñoko abeltzaintza-jarduera legeztatzeako Sailkatutako Jardueraren Lizentzia ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/31.- 2020. urteko musika eta dantza jardueretara joateko laguntzen ebazpenaren dekretua.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/32.- Nortegas Energía Distribución SAU.- 2020ko 4. hiruhilekoan zehar jabari publikoaren okupazio-tasa likidatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/33.- D.M.A.- Madairako baserri bat berreraikitzeke udalaren obra-lizentzia ematea. 1. fasea: hondakinak kentzea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/34.- L.R.L.- Zuhatzako abeltegiko estalkia berritzeke obrak hasteko baimena ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/35.- D.M.A.- Madairako baserria berreraikitzeke obran hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea (1. fasea: hondakinak kentzea).
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/36.- Aurobuses Cuadra SA.- Eskola-garraiorako baimena.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/37.- U.U.Z.- Koronabirusaren (covid-19) garapenaren ondoriozko kalte ekonomikoak arintzeko laguntzen helegitea ebaztea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/38.- Faenor SAL.- Hirigintza-berreraikuntzarako espedientea ebaztea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/39.- M.J.V.C.- Udal-artxiboko espediente eta dokumentuetarako sarbidea eta horiek kontsultatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/40.- R.S.I.- Arespalditzan etxebizitza turistikoaren Jardueraren Aurretiazko Jakinarazpena onestea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/41.- Ozekako Administrazio Batzordea.- Ozekan ur-biltegia eta Pozoportillo batzen dituen bidea konpontzeke udalaren obra-lizentzia ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/42.- A.J.A.G.A.- lizentzia emateke dokumentazio gehigarria eskatzea.



ALKATETZA DEKRETUA – 2021/43.- Goiener S Koop.- 2020ko 3. hiruhilekoan zehar jabari publikoaren okupazio-tasa likidatzea.

ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/44.- Acciona Green Energy Developments SLU.- 2020ko 4. hiruhilekoan zehar jabari publikoaren okupazio-tasa.

LKATETZA DEKRETUA.- 2021/45.- 2020ko Aurrekontu Orokorren luzapena onestea; hori 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera egongo da indarrean.

LKATETZA DEKRETUA.- 2021/46.- M.M.G.- Maroñoko familia bakarreko etxebizitza eraikitzeke udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/47.-MI.S.U.- Luiaondoko finkak banatzeko lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

LKATETZA DEKRETUA.- 2021/48.- F/2020/18 kontabilitate-zerrendan erregistratutako fakturak onestea.

LKATETZA DEKRETUA.- 2021/49.- Euskara ikasi eta hobetzeko laguntzak ematea eta ukatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/50.- R.Z.F.- Izoriako etxebizitza batean instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia eman izanari uko egitea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/51.- MC.N.B.- Luiaondoko etxebizitzaren lokala berritzeko udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/52.- M.M.G.- Maroñoko etxebizitza bat eraikitzeke hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/53.- AM.U.Z.- Lantenoko Inoriza auzoko 51 zenbakian dauden etxebizitzaren estalkian instalazio fotovoltaikorako udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/54.-AM.U.Z.- Lantenoko Inoriza auzoko 52,de zenbakian dauden etxebizitzaren estalkian instalazio fotovoltaikorako udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/55.- MJ.O.U.- Izoriako etxebizitza batean instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia eman izanari uko egitea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/56.- Elkarkidetza Pentsioak.- 2021eko urtarrilari dagokion likidatzea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/57.- G.A.O.- Arespalditzako etxebizitza batean instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/58.- JA.L.L.- Izoriako etxebizitza batean instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/59.- MU.E.L.- Lantenoko etxebizitza batean instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/60.- J.M.A.- Erbiko etxebizitza batean instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/61.- RL.A.R.- Zuhatzan bere jabetzakoa den etxebizitza batean instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/62.- MJ.U.S.M.- Izoriako etxebizitza batean instalazio fotovoltaikorako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/63.- JL.B.G.- Izoriako etxebizitzan igogailu bat jartzeko obraren hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/64.- S.M.LF.- Arespalditzako etxebizitza batean obra-lizentziaren espedientea amaitzea eta hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/65.- 2021eko urtarrilaren alkatearen eta langileen hileroko nominen txostena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/66.- T.S.U.- Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/67.- J.U.U. eta JA.E.U.- Menagarain finkak banatu, trukatu eta gehitzeko lizentzia ematea.



- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/68.- A.J.A.G.- Lanteno landa-finka banantzeko lizentzia ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/69.- R.V.M.- Aparkatzeko txartela ordezteka zaharkituta egoteagatik.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/70.- MA.M.O.- Murgan instalazio fotovoltaikoaren kokapena aldatzea, emandako obra-lizentziaren arabera.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/71.- G.O.T.- Etxegoieneko etxebizitza berritzeko udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/72.- A.F.A.- 4/2020 PFEZri dagokion likidatzea onestea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/73.- F/2020/198 kontabilitate-zerrendan erregistratutako fakturak onestea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/74.- Gizarte Segurantzaren DN.- 2020ko abenduko kuota ordaintzea.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/745.- 2021eko urtarrilean udalkideentzako ekarpen ekonomikoa.
- ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/746.- 2021eko urtarrileko udaleko alderdi politikoentzako ekarpen ekonomikoa.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/77.- D.P.E.- Aparkatzeko txartela ordezteka iraungita egoteagatik.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/78.- J.I.A.G.- Erretes Lantenon etxebizitza bat eraikitzeke hirigintza-berriztapenerako espediente irekitzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/79.- L.C.V.- Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen etxebizitza bateko bainugela berritzeko.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/80.- J.H.M.- Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen etxola bateko estalkia konpontzeko.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/81.- 2020ko teknikarien ordainsarien gastuetarako Administrazio Batzordeentzako dirulaguntza ordaintzeko agindua.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/82.- 2020ko teknikarien ordainsarien gastuetarako Administrazio Batzordeentzako dirulaguntza ordaintzeko agindua (bikoiztua).
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/83.- L.U.O.- Luiaondoko eraikin bat erabat berritzeko eta horren estalkia konpontzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/84.- Zuhatzako Administrazio Batzordea.- Zuhatzako Gizarte zentroan sukaldea handitzeko udalaren obra-lizentzia ematea eta JAK onestea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/85.- Agiñagako Administrazio Batzordea.- Agiñagako Gizarte Zentroan jasogailua instalatzeko obraren hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/86.- San José y San Buenaventura fundazioa.- Arespalditzako Cerrajería Jauregiaren ondoko eta isolatutako eraikinak eraisteko obra-lizentzia ematea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/87.- MA.Z.L.- Murgan etxola bat erabat berritzeko obra-lizentzia ukatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/88.- N.L.E.- Izorian etxebizitza bat Lehenengoz Okupatzeko Behin betiko lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/89.- 2020ko obrak gauzatzeko gastuetarako Administrazio Batzordeei dirulaguntza ordaintzeko minorazioa eta agindua.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/90.- Harsco Metals Lycrete SL- Sailkatutako Jardueraren Lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/91.- Hierros Encartaciones SL.- Murgan Tramame SA eta Remai SA enpresen instalazioak eraisteko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.
- ALKATETZA DEKRETUA – 2021/92.- San José y San Buenaventura fundazioa.- Arespalditzako Cerrajería Jauregiaren ondoko eta isolatutako eraikinak eraisteko obra-lizentzia ematea.



ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/93.- 2020ko aurrekontuaren likidazioa onestea.
ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/94.- 1/2021 Kreditu-gerakina Txertatzeko espedientea onestea.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du 2021/42 Dekretuaren testua ez dagoela osorik. Erantzun zaio testua osorik bidaliko dela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

12.- Eskaerak eta galderak.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak honako galdera edo eske hauek egin ditu:

- Eskatu du taldeei bidaltzen zaien dokumentazioa euskaraz ere bidaltzeko, ez soilik gaztelaniaz.
- Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak, Menoyo Gochi SL enpresaren espedienteari dagokionez, adierazi du Udalean eskaera bakarria sartu dela, enpresa horrena. Bertan eskatzen du Itun Batzordea osatzeko estatutuak onesteko presa handiagoa izatea, Zuhatzan txalet batzuk eraikitzeko. Gainera, ulertzen du, eskatutako txosten juridikoa izan arte espedientea etetea posible zen proposatu zitzaionaren arabera, espedienteek beti bezala jarraitu behar dutela, interesdunak horren inguruko ezer esan behar gabe.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du puntu honen inguruko dokumentazioa normaltasunez landu dela eta prest egongo dela datorren Batzordeako, baina ez interesdunak hori eskatu duelako.

- Galdetu du Done Bikendi Auzoko Etxejabeen Elkartearen idatziaren inguruan. Horretan Auzo horretan gainerako udalerriarekin modu seguruan komunikatzeko oinezko sarbide bat eskatzen dute. Adierazi du arazo horiei herritarrek egunero aurre egin behar dietela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du arazo horiek konpontzeko egiten duela lan politikan; auzo horri dagokionez, adierazi du Udalak udaleko teknikariekin eta Foru Aldundiak errepidearen bidez auzoa udalerriarekin lotzeko bide bat bilatzen direla, baina ez da erraza.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du hori dela izan behar dugun jarrera. Oso ongi dago lan egitea, baina badirudi galdetu izanak izorratu egiten diola.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH Bildu) zinegotzi jaunak honako galdera edo eske hauek egin ditu:

- Adierazi du Aiara banda zabala izateko behar handia dagoela eta berriz ere herritarrek dituzten konektagarritasun arazo larrien inguruko inguruko konponbide bat eskatzen duela.



Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du banda zabalaren konponbidea ez dagoela Udalaren eskutan, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren araberakoa da.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak gaineratu du badakiela banda zabalaren hedapena ez dagoela Udalaren eskutan, baina prozesuaren egoeraren berri eman beharko luke, zinegotziei zein konponbidearen zain dauden herritarrei.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du Udalak bere eskuetan izango balu banda zabalaren konponbidea azkar adostuko zuela dena. Hala ere, ez da horrela eta egin dezaketen gauza bakarra da administrazio eskudunei informazioa eskatzea, ondoren Batzordeari jakinarazteko.

- Zorrotzan hildako langilearen omenez monolito bat eraikitzeko eskaerari dagokionez, adierazi du Udalak beste konponbide batzuk jartzearen zain daudela, gobernu taldeak aurreko osoko bilkuran adierazi zuen moduan.
- Beste alde batetik, gaineratu du konponbideen zain daudela oraindik Garabillako isuriari dagokionez. Hori denboran luzatzen ari gara, baina oso arriskutsua da.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak, Garabillako isuriari dagokionez, adierazi du Udalak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari horren inguruko informazioa eskatu diola. Hala ere, esan du aurrekoan udaleko arkitektoak Hirigintza Informazio Batzordearen bilkuran hainbat espedienteren berri eman ziela. Ez da espediente honen inguruko inongo galderarik egin, eta, beraz, zinegotziei eskatu die ahal dutenean horrelako galderak udaleko arkitektoari egiteko, bera delako informazio gehien duena.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du talde politiko bakoitzak bere estrategia ezartzen duela, baina bilkuran galdetzen bada, herritar guztiek jakin dezakete Garabillan gertatzen dena. Gaineratu du lan batzordeak zinegotziei informatzeko direla, eta gaiak eztabaidatzeko; halere, batzuetan uste dute soilik alde edo aurka bozkatzeko edo abstenitzeko egiten direla.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ez duela EH Bilduren estrategia aldatu nahi, baina EAJ-PNVren estrategia errespetatu behar da. Gaineratu du gobernu taldeak egiten dituela proposamenak eta horiek Batzordera eramaten dituela bertan lantzeko. Oposizioko talderen batek landutako dokumentu alternatiboren bat ematen badu, hori aintzat hartuko da eta batzordean bozkatuko da.

- 2020 ekitaldiko udal-aurrekontuaren likidatzeari dagokionez, adierazi du gauzatu ez diren partida asko egon direla eta ez dela konponbide alternatiborik aurkitu aurten gauza gehiago egiteko, batez ere kulturari dagozkion partiden kasuan (jolastxokoa, ikastaroak...). Eskatu du aurrerapausoak emateko konponbideak bilatzean, aipatutako gaiak eten beharrean.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogueiak direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko otsailaren hemezortzian.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

O.E.
ALKATE-UDALBURUA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA

Sin.: M^a Del Carmen Rojo Pitillas.